


MUNDU BAT BERTSO



MUNDU BAT BERTSO



**Ane
Labaka
Mayoz**



**Malen
Amenabar
Larrañaga**



**Nerea
Ibarzabal
Salegi**



Doinua:
Gogoaren baitan

SORTZEN DENERO
MUNDU BAT BERTSO
IA EZERTXO
EZ DA EZINEZKO
SAIATUZ GERO

Plastilnaz, margoaz, puzzlez eta piezaz osatzen nituen munduak eskuak zikinduz, koloreztatuak irudimenez bigunduak.


Uki nitzakeen jostailu hoiekin soilik jolastu ohi nuen nik ez nekielako euskara hutsarekin jolas egin zitekeenik.

Horrenbeste begi, hainbeste belarri nire zain dago ikasgela begiak itxita imajinatu dut dutxa azpian nagoela.

Eskuak patrikan arnasa hartu eta lehenengo puntuan trabatu poto bat egin dut, hiru hanka luze baina ez da mundua bukatu.

aMoNa KoPeTa zimurtuarekin zuzendu da belarretara SUGE luze batek koska egin dio lausotu zaio BeGiRaDa.

Oinak buruan ta ideiak dilindan kantatzean naiz askeago irudimenari eskua emanda mundua jateko prest nago.



Profazadorak
XIV. mendea



Fernando Amezketarra
1764-1823, Amezkhela



Bizenta Mogel
1782-1854, Azkoitia



Franzisko Petirena,
"Xenpelar"
1835-1869, Errenteria



Joxepa Antoni Aranberri
"Xenpelar"
1865-1943, Errenteria



Txirrita
1860-1936, Hernani



Mariana Hargain
1860-1925, Ezpeleta



Basarri
1913-1999, Errezil

Mundu bat bertso liburua BERTSOZALE ELKARTEAn sortu eta diseinatu da, eta LANKU Bertso Zerbitzuak S.L.ren ardurapean maketatu eta inprimatu da.

Hizkuntza zuzenketak: Arkaitz Goikoetxea Arriola

Aholkularitza psiko-pedagogikoa: Amaia Vázquez Eguzkitza

Marrazkiak: Mirari Sagarzazu Sacristan, Patxi Gallego Palacios

Argazkien iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Esker bereziak: *Mundu bat bertso* liburuan agertzen diren bertsolari eta sortzaile guztiei

© 2018 Lanku Bertso Zerbitzuak S. L.
Martin Ugalde Kultur Parkea z/g
20140 Andoain (Gipuzkoa)

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikas S.L.

ISBN: 978-84-946981-6-3
Lege-gordailua:


Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola bikoiztea, banatzea, jendarean jakinaraztea zein eraldatzea, beraren jabetza intelektualaren dutenen baimenik gabe. Aipatutako eskubideen urratzea jabetza intelektualaren aurkako delitua izan daiteke (Kode Penaleko 270. artikulua eta hurrengoak).



Xalbador
1920-1976, Urepele



Iazkao Txiki
1926-1993, Iazkao



Xabier Amuriza
1941, Etxano



Andoni Egaña
1961, Zarautz




Maialen Iujanbio
1976, Hernani



Amets Arzallus
1983, Hendaia



Alaia Martin
1987, Oiarzun



Presta dezagun gure bertso saioa!

1 Ofizioka	7
2 Rap!	23
3 Kale hizkera	31
4 Bertso sortak	41
5 Beldurra lagun	55
6 Asmakizunak	71

Teknikari buruzko azalpenak eta ariketak

1 Neurria	81
2 Baietz bat-batean!	89
3 Errima	99

Nire bertsoak	105
---------------------	-----



NIK EZAGUTZEN DUT HORI !



Iratxe Ibarra



Iñaki Viñaspre



Amaia Agirre



Ander Lizarralde



Uxue Alberdi



Unai Muñoa



Iñaki Iturriotz




Onintza Enbeita



Xabier Terreros



Ainhoa Agirreazaldegi



Etxahun Lekue



Arrate Illaro



Josu Landeta



Rosi Lazkano



Arkaitz Estiballes



Estitxu Arozena



Julio Soto



Oihana Bartra



Jokin Labayen



Jone Uria



Xabier Silveira



Sustrai Colina



Unai Mendizabal



Aitor Mendiluze



Maddalen Arzallus



Unai Ormaetxea



Miren Amuriza



Sebaxtian Lizaso



Oihane Perea



Amets Arzallus



Jexux Mari Irazu



Aitor Sarriegi



Maialen Lujanbio




Jokin Uranga



Xabier Irakulis



Arantza Plaza



Iñaki Gurrutxaga



Igor Elortza



Miren Artetxe



Unai Iturriaga



Andoni Egaña



Angel Mari Peñagarikano



Malen Amenabar



Endika Ruiz



Mirari Sagarzazu



Jone Antsotegi



Jone Larrinaga



Peru Vidal



Aimar Karrika



Aitor Arrutia



Alaia Martin



Amaia Iturriotz



Unai Mendibil



Ander Elortegi



Ane Labaka



Arkaitz Oiartzabal



Arkaitz Zipitria



Beñat Gaztelumendi



Bixente Gorostidi



Elixabet Pagola



Eñaut Uruburu



Eneritz Artetxe



Fredi Paia



Idoia Anzorandia



Igor Meñika



Iker Gorosterrazu



Irati Erkizia



Xan Alkhat



Jon Maia



Jon Martin



Josu Telleria



Joxema Leitza



Uxue Diaz de Cerio



Maddi Sarasua



Maialen Akizu



Mainer Arregi



Manex Agirre



Mikel Artola



Nerea Elustondo



Nerea Urria



Nerea Ibarzabal



Odei Barroso



Oihana Iguaran



Oskar Estanga



Paula Amilburu




Jon Ruiz de Pinedo



Julen Zulaika



Aitor Irastorza



Egoitz Zelaia



Itxaso Paia



ZOPAN ERE BERTSOLARIAK

Aurki ditzagun bertsolari hauen abizenak edo ezizenak.

M	A	R	I	P	I	G	U	R	I	A	N	A	R	O	A
E	T	X	E	R	R	I	G	A	U	P	A	I	T	A	L
A	O	L	B	I	A	N	X	O	M	A	R	T	I	N	I
R	K	A	I	M	Z	U	L	A	A	M	A	U	R	A	T
Z	I	Z	P	O	A	L	A	B	L	U	R	R	U	N	X
A	O	K	R	I	L	L	E	N	A	B	A	R	K	O	I
L	G	O	I	N	B	A	G	O	Ñ	I	A	I	Z	A	R
L	I	Z	A	R	E	Z	A	L	A	Z	K	D	N	O	E
U	R	K	I	A	R	E	Ñ	A	G	A	R	I	O	A	Z
S	O	T	O	K	D	P	A	L	I	H	E	R	I	R	U
O	S	I	T	O	I	B	N	A	J	U	L	I	T	O	L
M	O	S	O	L	O	Z	A	B	A	L	O	K	L	S	I
A	R	O	C	O	L	I	N	A	J	U	R	I	A	O	D
U	R	P	E	R	E	A	L	U	P	O	T	T	O	R	N
X	A	B	I	E	R	I	K	A	L	I	Z	A	S	O	E
A	B	I	B	A	R	Z	A	B	A	L	A	L	O	A	M



Uxue



Amets



Fernando Aire



Nerea



Andoni



Oihane



Julio



Jone



Aitor



Maialen

OFIZIOKA

Bertsolaritza, sorreratik, tema izan da: ahari talka.

Batek esan eta besteak erantzun.

Eutsi eta dale: enbidoari hordago, arrazoiari buelta, dena ziri eta erremate.

Gozatu ederra hartu behar dugu...
Ring-era igotzeko prest?



ZER DA OFIZIOKA ARITZEA?

Bertsolaritzan, ofizioka jardutea hauxe da: egoera baten aurrean, bi pertsonaia aritzea elkarriketan edo eztabaidan.

Ikus ditzagun ofiziokako saio eder batzuk!

ELKARREN BEHARREAN

Ofizioka ari garenean, bi bertsolarien artean eraiki behar dugu diskurtsoa.

Bi buruko herensugea bagina bezala, elkarrekin egin behar dugu bidea pausoz pauso, argudioz argudio, adar jotzez adar jotze.

Ofizioka ari direnean, elkarren beharra dute bi pertsonaiek, aurrera egingo badute.

PERTSONAIA ANTAGONIKOAK

Batzuetan, egoera baten aldekoak eta kontrakoak agerian jar daitezten, bi pertsonaia antagoniko (edo aurkako) jartzen dira jokoan.

Pertsonaia batek egoeraren alde ona ager dezan, eta besteak alde txarra.

Batek alde ederra, besteak zatarra. Batek ordena, besteak kaosa.

Bakoitzak mutur banatatik begiraturaz, bien artean gai horren begirada osoagoa emanez publikoari.



Asma dezagun zein den pertsonaia bakoitzaren antagonikoa!

KATUA /

EGUZKIA /

MAITASUNA /

EGIA /

BELDURRA /

POLIZIA /

IRAKASLEA /

MEDIKUA /

SALTZAILEA /

SOROSLEA /

A ETA B

Hara hemen pertsonaia antagonikoak dituzten gaiak.

Azter dezagun gai bakoitzean:

- Gure ustez, zein pertsonaiak du paper errazagoa egoera horretan?
- Eta bururatzen al zaigu biderik pertsonaia zailena duenak ere distira egin dezan?
- “Bere aldera” ekar dezan dialektika?

LANGABEA ETA BANKUKO NAGUSIA

A, zu langabezia zaude, eta etxeko hipoteka ordaindu ezinik daramatzazu hilabeteak.

B, zu zara bankuko nagusia, eta gaur deitu egin diozu A-ri.

Ordaintzen ez badu, bankuak etxea kenduko diola esan diozu.

BASAMORTUAN OPTIMISTA ETA PESIMISTA

Basamortuaren erdian galdu zareten bi lagun zarete.

A, zu izaeraz optimista zara erabat, eta baikor ikusten duzu dena.

B, zu, aldiz, izaeraz ezin pesimistagoa zara, eta oraintxe dena zaizu beltzean beltz.

ESKI IRAKASLEA ETA HASIBERRIA

A, lehen aldiz joan zara gaur eskiatzera.

B, zu zara eski irakaslea.

Maldan behera abailan zoaztela, A-k zuhaitza jo du... beste behin.

HONDARTZAN BILUZIK ETA BAINUJANTZIAREKIN

Bi ezagun zarete.

Espero ez zenutela, hondartza nudista batean topatu duzue elkar.

A, zuk bainujantzia daramazu. B, zuk ez.

ZAKUR TXIKIAREN ETA ZAKUR HANDIAREN JABEAK

Zuen txakurrak paseatzen ari zinetela, parkean aurkitu duzue elkar.

A, zuk artzain txakur aleman handi bat daramazu, soka lotuta.

B, zuk arratoi txakur hanka-motza, aske.

Arratoi txakurra zaunka eta zaunka ari zaio artzain txakur alemanari.

EZTABAIDA ALA ELKARRIZKETA?

Beti ez dago kontra egin beharrik.

Dialektika eraikitzeko, kidearekin ados ere agertu gaitzke, bat etorri.

Edo nahiz eta pertsonaia bakoitzak hautu bat egin, bestearen aukera ulertu genezake, eta elkarrizketaren bidez gaien sakondu.

Askotan, bertsolarien esku dago erabakitzea: eztabaidan ariko diren ala elkarrizketan.

Beste askotan, gaiak berak agintzen die bertsolariei eztabaidan ari behar duten ala baduten aukerarik adostasunetan oinarritzeko.



Azter dezagun gai bakoitzean:

Gure ustez, zerk funtzionatuko luke hobeto, eztabaidak ala elkarrizketak? Zergatik?

BI IKASLE AZTERKETAN

Bi ikasle zarete. Azterketan zaudete, elkarren alboan.

A, zuk ordu asko eman dituzu ikasten; B, zuk bat ere ez.

A-ri kopiatzen uzteko eskatu diozu zuk, B.

SUHILTZAILEAK

Suhiltzaileak zarete. Kamioiarekin iritsi zaretenerako, etxeaugarretan dago.

Garrasiak entzuten dira barrutik. A, zuk barrura sartu nahi duzu; B, zuk ez.

FUTBOL TALDEAN

Futbol talde bereko bi kide zarete. Partida duzue eta, gaur ere, entrenatzaileak zu titular jarri zaitu, A. Zu, B, gaur ere aulkian utzi zaitu.

PERTSONA BERAREKIN MAITEMINDUTA

Bi lagun zarete. Biok zaudete maiteminduta pertsona berarekin: txora-txora egiteraino.

Ez dizue kasu zipitzik egiten.

BIRRAITONAK GERRAN

Zuen birraitonak 1936ko Gerran frontera eraman zituzten.

A, zure birraitona tropa frankisten aldean egokitu zen. B, zurea errepublikazaleen aldean.

ERANTZUN ALA BIDEA IREKI

Ofizioka ari garela, bi kideen ardura da solasaldia ez amaitzea. Bien ardura da hizketan jarraitzeko bidea ematea elkarri. Horretarako, bertso bakoitzean bi aukera izango ditugu. Kideari erantzutea edo bidea irekitzen jarraitzea (erreferentzia, galdera, argudio, pertsonaia, ekintza berriak ateraz hizpidera).



GO!AZEN



Estitxu
Arozena
Albizu



Azpimarratu dezagun: Zein puntutan ari dira erantzuten kideak esanari? Eta zein puntutan ari dira bidea irekitzen?

Izarok Lurri gaur aitortu dio lehendabiziko muxua eman duela asteburuan.



Doinua:

Igaran egun batez
Zortziko txikia

Izaro

Go!azeneko Julen ta Nahian **antzera** muxu bat eman eta nabil **alegera**. Orduz geroztik biak gabiltza **batera** bizitza osorako izango **ote da?**

Lur

Orain bizi itzazu hainbat une **eder** zuk nahi baduzu eman muxu mila **bider** baina ez zazu flipatu baietz jakin **laster** bizitza osorako ez dagola **ezer**.

Izaro

Benetakoa zer den zaude **ohartzeke** nire sentimenduez fidatu **naiteke**. Amets hau toperaino nahiko nuke **bete** Basakabira ere joango **nintzateke**.

Lur

Basakabin bete nahi zenuke **ametsa** kristau udaleku da ez zazula **pentza**. Zuzenen gurutzea nahiz sotana **beltza** ta ez duzu ezagutzen herriko **apeza**.

Izaro

Zure iritiz nabil uste **ustelean** ez nauzu zapuztuko ezkorren **elean**. Mila bihotz marraztu ditut **arbelean** txolarreak sentitzen ditut **sabelean**.

Lur

Txorien izenekin nolako **pasada** hala galaraziko didazu **patxada**. *Maurizia* ta *Leon* loroen **gisara** gauzak errepikatzen abilena **zara**.

GAIAREN ATZEKO GAIAK

Elkarrizketak aurrera egin dezan, aldiro zerbait berria erantsi behar dugu.

Armairutik, gaiaren atzeko gaiak atera beharko ditugu: egoera horren atzean dauden korapiloak, gatazkak, pertsonaiak, objektuak, sentimenduak, paisaiak, hitzak...

Alegia: egoera eta pertsonaia horiekin identifikatzen ditugun ahalik eta galtzerdi, kapela, beroki eta mozerro gehienak.

ATZEKO GAIEN DESFILEA



2013ko Txapelketa Nagusiko Finalean, Aitor Mendiluze eta Igor Elortza Olentzeroren eta Aita Noelen paperean jarri zituzten.

Pertsonaia antagonikoei tiraka, atzeko gai hauek denak atera zituzten bien artean elkarrizketan. Aurkitu ditzagun puntuetan eta **azpimarratu** ditzagun!

OLENTZERO ETA AITA NOEL

-Elkarren konpetentzia.

-Janzkera ezberdinak.

-Olentzero ikazgilea.

-Haurren erreakzioak bakoitza ikustean.

-Aita Noel, mundu globalizatuan Estatu Batuek duten indarraren ikur.

-Tximinia ezberdinak baserrietan eta kalean: bizimodu aldaketaren ikur.

-Lanean nork zikintzen dituen eskuak eta nork bukatzen duen eskuak zuri.

-Etxeko hurrek ez dituzte ikusi behar.

-Konpetentziatik elkarlanera pasatzea.

-Errege Magoak.



OLENTZERO ETA AITA NOEL

Txapelketa Nagusia, 2013. BEC.

Gaia: Zu, Aitor, Olentzero zara eta zu, Igor, Aita Noel.
Tximiniatik sartu ezinik zabiltzate.



**Aitor
Mendiluze
Gonzalez**

**Igor
Elortza
Aranoa**

Gabon adiskidea
nolatan zu hemen?
Ikusi beharko da
adiskide garen...
Nik baietz pentsatu det
ukatu baino lehen
Berba egingo dugu
amaitu ondoren.

Zergatik zatoz horren
itxura beltzeko?
Ezin da txuriz joan
ikatz lortzeko
Gogoal daukazu
haurrak izutzeko?
Ta zuk berriz guztiak
barrezka jartzeko?

Zeinen ridikuloa
uniforme hori
Ba Coca colak dio
nagoela ongi
Falta dira zintzilik
bola bat edo bi
Zure kapoitxo hoiek
ekartzea tori.

Kontuz, nirekin daude
CIA eta NASA!
Ta halere sartzeko
ez zera kapaza
Ez didazu ipintzen
ez bide erraza
Lagun handiak baina
laguntza eskasa!

Ze tximini estuak
gaurko etxeetan
Neu ere sartu ezinik
nabil bai benetan
Gainera su bajurik
ez da kaleetan
Amaitu behar dugu
gaur biok penetan.

Sartzeko beste bide
bat ba ote dago?
Nik mepansaren orde
atea nahiago
Zoaz zu aurretik ta
gero ni errezago
Lan zikinak egiten
ni ohituta nago!

Baina ta zer umeak
esnatzen badira?
Baten bat ikusi dut
leihotik begira
Ez gaitzala ikusi
azkar erretira
Nik ipuina kontatu
ta zeuk jarri tira.

Noski bion artean
hobe izango da ta
ia ba sartzen geran
elkarri tiraka
Azkenik egin dugu
langintza aparta
Eskerrak ia Errege
Eguna bada-ta!



Doinua:
**Ezagutu zuenak
Zortziko txikia**

PERTSONAIAREN LARRUTIK

Ez dute berdin hitz egiten amona moñodunak eta punki gandordunak. Bakoitzak bere janzkera du, bere nortasuna, bere filiak eta bere fobiak. Bakoitza bere zoroak bizi du... eta bere hizkerak!

Bi bertsolari ofizioka ari direnean, publikoak argi bereizi behar du nor den nor. Bertsolariak bere pertsonaia marraztu behar du, publikoak ikusteraino. Eta marrazteko, bertsolariak bi isipu ditu. Bere pertsonaiak zer esaten duen, eta zer egiten duen.



Igor
Menika
Bengoetxea



Doinua:
Aita semeak
Kopla handia

GELAKO TRIBUAK



Pertsonaia estereotipatu batzuk aurkeztuko dizkigu jarraian Igorrek. Osa ditzagun koplak, neurria zainduz. Kontuz hankamotzik eta hankaluzerik egin gabe!

Saiatuko naiz / gogoia etorri zait / hasi naiz gure gelako tribuen mapa egiten irakurri ta zuek ikusi baten / ia nonbaiten / zeinetan sartzen zareten.




PUNKIA

Punkiak dakar gominaz jarrita / kolorearekin / oilarrak legez buru gainean gangarra munduarekin haserre dago alboan dagoen / egunero / ikasgelako makarra.

GOTIKOA

Txima luzeak, larruzko txupa ta piercingak ezpainetan / tatuajeak belaunetan / arrakadak belarrietan argitan baino nahiago dute ibili beti / bizitzea / egon ilunpetan.





PIJOA

Mobil garesti, markako prakak,
sari askotan / asteen behin / urtero manikura
burmuina baino gehiago lantzen
dute / ari dira / da kanpoko itxura.

HIPSTERRA

Hauek nahiko lan izaten dute
ileak zaintzen / aurpegia apaintzen / ispilu aurrean bakarrik
guk ere nahiko genuke baina
ez zaigu hazi / oraindik ez daukagu / kokotsean bizarrik.



RAPEROA

Bisera buelta emanda jarri
"egunon osaba" / "haika mutil" / "zer dago, brother?" esanez
kantuz errimak botatzen ditu
trobadoreak / Eminemek egiten duen / bertsolari batek legez.



Zuen burua ez baduzue
horrela ikusten / identifikatzen / inon kokatu, hobeto
bada garaia bertsozaleen
elkarte bat / tribu berria / lagunen taldea sortzeko.

ESATEN ETA EGITEN DUGUNA GARA

Gelako tribu horretan, bakoitzak bere izaera du.
Ea asmatzen dugun egoera berean pertsonaia bakoitzak nola erreakzionatuko lukeen!
Gurasoa sartuko da bakoitzaren logelan, errietan.
Baina...
Nolakoa ote da bakoitzaren logela?
Zergatik hartuko ote dio kargu gurasoak bakoitzari?
Eta zer eta nola erantzungo ote dio bakoitzak gurasoari?



Iñaki
Gurrutxaga
Zubimendi



GURASOA LOGELAN



Doinua:
No woman no cry
Kopla handia

AITA

Baina zer da hau? Zer kuxidade?
Jaso hau **derrepentean!!!**
Zure aitaren etxean zaude
ta ez gaztetxe **batean!**

SEME PUNKIA

E, zaharra, lasai! Jarri arreta!
Hiretzat bi kantu, **nahita:**
RIP ta Hertzainak, *Policia no*
eta *Hil ezazu aita!*



AMA

Ai ene, maite! Oraintxe egon naiz
argazki zaharrei **begira...**
Lehengo neskatxa alai, bizia
gela honetan bizi **da?**

ALABA GOTIKOA

Egun on, ama. Tira, egun on...
egun onik ez da **hemen...**
Zure alaba ñoño, kursia
lur azpian sartu **nuen...**

AIŦA

Aita ta ama lanean ziren
haginak irteterako,
gure kulpa da nahi duzun dena
ematen dizugulako!

**ALABA PIJOA**

Jope, aitatxo, ez haserretu,
ez irten zure onetik!
Katu txiki bat bidali dizut
lasaitzeko, iPhonetik!

**AMA**

Mutiko gazte baten piura
hau izango da, kauenla...
Moztu bizarra! Zer uste duzu,
aizkolari bat zarela?

SEME HIPSTERRA

Ez, ama, ez, ni moderno bat naiz
ez duzu ulertzen moda...
A, ta non dago aitak gaztetan
janzten zuen alkandora?

AIŦA

"A-ha!" ta "a-ha!", erdi eztulka,
oinak arrastaka, berriz...
Etxe barruan kendu bisera,
esan dizut mila aldiz!

SEME RAPEROA

Hey, bro, aditu nire errimak,
ni naiz jefea! Ni bossa!
(bueno, aitatxo, kendu ezkerro
jarriko duzu arroza?)

**AMA**

Zortziko handi bat sekula ez da
kopla txikian kabitzen
ta hasi zaitez zure gelako
traste hauek denak biltzen!

ALABA BERTSOLARIA

Ama hemendik agintzen eta
aita errietan handik...
Ziur ez dakit noiz arte baina
maite zaituztet oraindik!

EGIN DEZAGUN OFIZIOKA!

Ofizioakako gure saioa prestatuko dugu. Has gaitezen, pausoz pauso!



Hauta dezagun gaia.

HERRIKO FESTAK

A, zu gurasoa zara eta B, zu seme/alaba gaztetxea.
B, aurten lehen aldiz, herriko festetan gauetz kuadrillarekin irteteko plana egiten ari zarete.
Negoziatzen hasi zarete gurasoa eta seme/alaba.

UDALEKUETAN IGERILEKURA

Udalekuetan zaudetela, igerilekura joan zarete.
A, konturatu zara B-k ez duela arropa erantzi nahi, lotsa ematen diolako bainujantzian agertzeak.

AMONA-BILOBAK TELEBISTA AURREAN

Etxeko sofan zaudete film bat ikusten. A, amona zara, eta B biloba nerabea.
Filmeko protagonistak epel hasi eta kiskaltzeraino berotuta, larrutan ari dira, jo eta su,
denbora luzez. Segi eta segi. Amona-bilobak isilik zaudete sofan, deseroso.

AITONA HIL DA

Anai-arrebak zarete. Zuen aitona hil da. Gurasoek galdetu dizuete ea zer egin nahi duzuen agurtzeko: beilatokira joan nahi duzuen edo hiletara, gorputza ikusi nahi duzuen, beste zerbait egin... Zuetako bakoitzak zer egin nahi duzuen eta zer ez, hizketan hasi zarete.

BANKUA ATRAKATZEN

A, zuri tentsiozko egoeratan lotsa sartzen zaizu, hezurretaraino; oso-oso-oso lotsati agertzen zara. B, zu tentsiozko egoeratan baldar-baldar ibiltzen zara; ezin zapoago.
Gaur biok banku bat lapurtzera sartu zarete.



Eztabaida ala elkarrizketa?

Gure gaia sakontzeko, bi pertsonaien artean zer bilatuko dugu, eztabaida ala elkarrizketa?



Pertsonaiaren armairua betez.

Irudika dezagun: egoera horretan, nolakoa da pertsonaia bakoitza?

ADINA

NOLA DAGO JANTZITA

.....

NOLA SENTITZEN DA

.....

ZER-NOLAKO IZAERA DU

.....

NOLAKO HIZKERA DARABIL

.....

IZENA



Gaiaren atzeko gaiak.

Zein dira eszena horretako elkarrizketan aipatu genitzakeen azpigaiak, kezkak, arazoak...?

.....

.....


.....

.....

.....

.....

OFIZIOKA



Doinua:



Zein pertsonaia hasiko da hizketan? Eta zer aterako du, hasteko, armairutik?

Norantz abiatuko du elkarrizketa?

Gaiari tira egiteko, gogoratu bertso bakoitzean bi aukera ditugula: kideari erantzun ala armairutik zerbait berria ateraz bidea ireki.

Zerbait gorde nahi al dugu bukaerarako?

Nola bukatu ez badakigu, lasai: ea elkarrizketak eta pertsonaiek nora garamatzaten!

Elkarrizketaren hezurdura

1



2



3



4



5



6



Ofizioka

A series of horizontal dotted lines for writing, consisting of 20 lines spaced evenly down the page.

Ofizioka

A series of horizontal dotted lines for writing, consisting of 20 lines spaced evenly down the page.

RAP!

Rap zaleak al gara? Zer talde ezagutzen ditugu?

Antzekotasunak badituzte rapak eta bertsoak;
baita ezberdintasunak ere.


Raparen ibaian barrena, hainbat hizkuntza eta identitate
ezagutzeko bidaia egingo dugu.

Ura bezala mugituko gara. *Flowa* beharko dugu horretarako:
jarioa. Hitz-jarioa, mugimendu jarioa, erritmoan barrena
nortasuna adierazteko.



KANTU INPROBISATUA MUNDUAN

Euskarak bertsolaritza duen bezalaxe, Brasilek repentea du, Mexikok trovoa, Kazakhstanek Aytisa... Munduan hizkuntza askotan egiten da kantu inprobisatua. Ikus dezagun nola inprobisatzen duten beste zenbait kulturatan!



- 🔗 Zertan iruditu zaizkigu antzekoak eta zertan ezberdinak bertsolaritzarekin alderatuta?
- 🔗 Gure ikasgelan, euskaraz gain, zer kulturatako eta zer hizkuntzatako lagunak gaude? Kantu inprobisatua egiten al da hizkuntza horietan ere? Arakatu dezagun Kantu Inprobisatuaren Mapan, eta galdetu dezagun etxean! <https://www.mintzola.eus/eu/kulturarte/mapa>

RAP. KANTU INPROBISATU "BERRI" BAT

Rapa 70eko hamarkadan sortu zen, New York hiriko afro-amerikarren auzoetan (Brooklyn, Bronx, Queens), eta Jamaikako sound systemetan du jatorria.

Gaur munduko edozein txokotan entzun eta egiten den musika izatera pasatu da, eta kultura, hizkuntza eta estilo askorekin aberastu da.

Ezagutu dezagun raparen sorrera!



BERTSOA ETA RAPA

Ikus ditzagun zenbait rap talde!



Zertan bereizten dira bertsoa eta rapa? Hitz hauei tiraka, pentsa dezagun zer-nolako antzekotasunak eta ezberdintasunak ikusten dizkiegun rapari eta bertsoari.

ERRIMA

ABESTEIA

ERREZITATZEA

DOINUA

ERRITMOA

METRIKA

KRITIKA SOZIALA

GORPUTZ MUGIMENDUA

INPROBISAZIOA



INPROBISA DEZAGUN!

Musika-oinarria jarri, eta inprobisatu egingo dugu! Erritmoaren gainean, nahi duguna egin genezake: hitzei doinua eman, erritmo aldaketak sartu, bolumenekin jolastu, errima nahieran baliatu, errepikak, soinuak...



Lagungarri bazaigu, gai hauetako bat hartu eta errima bikoteekin esaldiak osatzen joango gara, inprobisatuz.

NATURA

AZTERKETAK

SARE SOZIALAK

ARROPAK

natura - ura

azterketa - karpeta

sarean - parean

moda - gustora

arnasa - gasa

apunte - nuke

mobila - bila

talla - zaila

motorra - zaborra

bezperan - soberan

Watsapp - bat

estu-estu - sinestu

plastiko - ito

ikasten - ahazten

talde - alde

Adidas eta Nike - zait

erradioaktibo - berriro

fisika-kimika - polita

Instagram - han

puskatuta - kulpa

zikina - mina

gela - kartzela

argazki - aski

eskarateia - izatea

hondakin - jakin

arreta - erreta

urrutira - aurpegira

beherapenak - denak

birziklatu - sartu

bikain - zain

youtuberra - gerra

merkeago - esklabo

bota - inporta

bostekoa - ezustekoa

intimitatea - atea

itxura - barrura

ingurura - ardura

lanean - onean

bakardadea - jabea

edertasuna - duguna



Julen
Zulaika
Alkorta



EURIA ARI DU

Gure rapa idatziko dugu, gustuko gaia eta musika-oinarria hartuta. Ikus ditzagun eredu batzuk. Halako zerbait egin genezake guk ere!

Kaletik goaz, euria **ari du**
denentzako da baina bustitzen gaitu **beti gu**
dena araua, zigorra, **legea**
noiz egingo dugu **harresi gabeko bidea!**

Astelehen **goiza**, heltzen denean **bakoitza**
aulkian **eseri**, ta egon zaitez **geldi!**
Begira nago erloju **zaharrari**
gaurkoagatik pixkat azkarrago joan **hadi!**

Azterketen **ordua**, heltzen denean **mundua**
egiten zait mila **puska**, hau da kalabaza **uzta!**
jaso beharko **dudana**, komedia edo **drama**
hartu nahi duzun **gisan**, orain arte **bizitzan**
ez dut aukeratzeko aukerarik **izan!**

Aspaldi ikasi nuen, batzen eta **kentzen**
atzo arte plaka tektonikoa ez nekien **zer zen**
mapa baten aurrean, badakigu Kairo **jartzen**
baina noiz ikasiko dugu mundua **aldatzen.**

Txirrinak **jo du** oraindik 4 **ordu**
geratzen **dira ta** nik egon nahi dut **tirata**
edo kalean lagunekin **jolasten**
nork dio kalean ez dugunik **ikasten.**

Orain klasea orain **ingelesa**
gaztetatik barneratu dezagun **estresa**
motxila bizkarrean noa hemendik **hara**
gure eskutan ez gauden titereak **gara.**



ESNATZEKO IPUINA

Ipuinez bete digute **memoria**
baina ekintzek osatzen dute **historia!**

Bazen behin lurralde **magikoan**
sagar pozoitsu bat sartzen zena **ahoa**
lokartzen zituen guztiak **atoan**
Edurne Zuri gisa printzesak **zirelakoan!**
Bizi zirenez inguratuta **legez,**
txori txikiak kaiolen baitan **legez...**
Beraz, egun **batez** erabaki zuten jartzea
mundua **andrebes!**

Sinistuz **gero,** sua bezain argi, **bero...**gaitasunetan
ez lortzerik ez **espero!**

Ipotxa **erraldoi,** inurria **dragoi**
bihurtu liteke ahaldundu eta gero!
Gazteluak **hare,** munduaren **jabe**
politagoak gara ispilu hauskor **gabe!**
Pasatu **orria, ongietorria,**
mundu libre baten atarian **zaude!**

Esnatu eta **konturatu:**

Mari Errauskinek badu zer **kontatu**
neurria ondo hartzeko jantzi du **takoia**
emakume aske da lehen zena **morroia!**
Pipi Kaltzaluze -katez motz, hegoz **luze-**
edota **Mafalda,** horren zaila **al da**
izatea zoro, eder, **kategabeko?**
Ez inoren gainetik, ez inoren **menpeko!**

Ireki **burua,** ta itxi **liburua!**
Filosofia aldatzeko heldu da **ordua!**
Protagonista zara, hau da **ikasgaia:**
historia idatzeko heldu da **garaia!**

3, 2, 1 arma tiro **pum!**
Emakumeen balak ez ditugu **entzun!**
Historiak zuloa dauka **amantaletan**
izen asko falta da oraindik **orrietan!**
Kristina Mardaras, Maurizia **Aldaiturriaga...**
atera zinetenak lehenbizi **plazara;**
ausartak, finean erreferente **apartak,**
zuei esker, gaur gehiago **gara!**



Izar
Mendiguren
Cosgaya

Rap!

Hala bazan edo ez **bazan**
sar dadila zure **kalabazan**
eta atera behar duzun **plazan**
egunez amestu, zoriontsu **izan!**



AMETSAK

Nafarroako eta Iparraldeko bertso-eskolen topaketetan sortutako rapa.

Ametsak **amesten**
gezurrak **sinesten**
ametsak **amesten**
bizitza
erreala **errazten**.

Maitea
ireki duzu **atea**
ez al da gau **iluna**
ederra ta **gaztea?**
Pausoa **ematea**
da biok nahi **duguna**
maitasuna,
biok elkartu **gaituna.**

Ametsa gau beltza
iluntasun **ikurra**
beldurra
bizitzaren **iruzurra**
elurra **hotza**
izotza ikara
hara!
Bizitza **faltsua da!**


Gauaren **luxua**
begirada **lausua**
muxu bat emateko
intentzio **sutsua**
nire begitan **sua**
ta aurrera **pausua**
azkenean eman diot
ametsari **musua.**

Berriro ere hor da
munstro **maltzurra**
agerraldia egiten duen
ikararen **ikurra**
baina egiaztat dugun
beldurren **gailurra**
iratzartzean beti
bilakatzen da **gezurra.**

Lehen gose zirenak
orain ez dira **egarri**
haserre zirenak
besarkada **elkarri**
amets **goxoena!**
Onena! Ze pena!
Bat-batean **jatzarri**
bukatu da **dena.**

Ezinezkoa al da
ametsak **egitea**
itsuak **ikustea**
jendea **parez pare**
edo hegalik **gabe**
hegaka **ibiltzea**
aspaldi debekatu
ziguten **amestea.**

GURE RAPAI!



HAUTA DEZAGUN ZER ESTILOTAN EGIN NAHI DUGUN

- Bertso bat abestuz, rap oinarriaren gainean.
 - Bertso bat errezitatuz (rap estilora), bertso doinuaren gainean edo rap oinarriaren gainean.
 - Gustuko testu bat hartu eta errezitatuz, rap oinarriaren gainean.
 - Rapa sortuz: dena libre!
- Gustatu zaigun eredu bat hartu eta egiturari jarraitzea lagungarria izan daiteke.

HAUTA DEZAGUN GAIA. ZER MEZU EMAN NAHI DITUGU?

**GELAKO HIZKUNTZA GUZTIAK BALIATU GENITZAKE
GRABATU ETA BIDEOKLIPA ERE EGIN GENEZAKE!**

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Gure rapa

A series of horizontal dotted lines for writing.

KALE HIZKERA

Euskara garbia da, nahi duenean.
Bai lizun askoa ere, kalekoa, basa, gizakiaren zuloetatik datorrena.
Euskarak badu izerditik, listutik, odoletik, uzkerretik, jario likitsetik.
Gure hiztegia sortuko dugu. Hitz ederrez, hitz itsusiz, berba tristez eta euforikoz josia.
Erabili eta bota ditzakegu gero Euskararen Eguneko leloetan, umore esketxetan,
piropopostan, lehiaketa zein pegatinetan.
Aska ditzagun segurtasun uhalak!





**Sustrai
Colina**
Akordarrementeria



PIROPO SORTA



Doinua:

*Kontu barri bat suzedidu da !!
Kopla handia*

Maiteminduta gauzkan horri, tori piropo sorta, azukre-eztitan lika-lika eginda.

Zure irriak esnatzen ditu
zaborrontziak **loretan**,
izotz-mendiak palmondopean
eta zebrak **koloretan**.

Zure ezpainen ortzadarrezko
bihotz baten forma **dute**:
zure hortzetako aparatua
konpartitu nahiko **nuke**.

Semaforoko panpina banintz
gurutzatzean **karrika**
gorritu gabe zure atzetik
joango nintzake **korrika**.

Estudiatzen ukondorik ez
dut urratu ohi **mahaietan**
zuri so egon ahal izateko
azterketa **garaietan**.

Zu bazinake ogia eta
ni ontza bat **txokolate**
ez al nintzake zugan urtuko
Nutella bihurtu **arte**?

Pagari ere uko egiten
diot aspaldi **honetan**
zure irudia agertu arte
billete ta **txanponetan**.

Segapotoko zure pantaila
izan nahi nuke **lantzean**
emotikono bat sentitzeko
zure hatzek **laztantzean**.

Nahiz orain arte karanbola bat
zen ilargi **eklipsea**
orain nahikoa da zu gauetan
komunera **jaikitzea**.



LORE KOPLAK



Ixiar
Eizagirre
Kerejeta



Doinua:

Negu partean mizpira

Hiru puntuko kopla

Maiteminduta nagola
borborka daukat odola
zergatik segi argia ordaintzen?
Zu zara nire lberdrola!

Zu zaitut gailurra, maite
zure baietza bitarte
Everestera oxigenorik
gabe igoko nintzake.

Ausardia dut bertute
zure muxu baten truke
liztor asiaticoen erlautzan
sudurra sartuko nuke.

Egin behar bada borroka
ausarta naiz, bost inporta
nik erraz hilko nuke zuegatik
balea txankletazoka.

Zientziak frogatu bezela
jabetu gara horrela
aldaketa klimatikoaren
arrazoia zeu zarela.

Emaidazu guraizea
urra dezadan haizea
Eguzki banintz, ta zu llargi
ze maitasun eklipsea.

Etsitzear nago zinez
zugana heldu ezinez
zure begiak itsaso dira
ta nik igeri jakin ez!

Espaloian zoazela
banilla eta kanela
gero esango dute loreek
ibiltzen ez dakitela.

Horren guapo, hain perfektu
mister nazioarteko...
Esan zein duzun zure izena
Olentzerori eskatzeko.

Nola zaitudan hain laket
seguru esan dezaket
zu xagu ta ni katu bagina
libre utziko zintuzket.



Ane
Labaka
Mayoz



BILUZIK



Doinua:
Eguntsenti batean
Neurri berezia

Inoiz bota al diogu piroporik geure buruari?
Ispiluaren aurrean bakarrik gaudela, zer esaten diogu geure islari?
Maitasun begiekin ikusten al dugu geure gorputza?

Ez dago konplexurik ez duen gorputzik minduko ez zuena zenbait hitz itsusik nahiz berez ez daukadan keinu harroputzik gaur nire ausardia izango du gutxi... Bakarrik bada ere ez sentitzeko hutsik ispiluaren aurrean jarri naiz biluzik.

Ispiluz bestaldeko horrek zerbait dauka... la pentsatu gabe esan diot: "Aupa, zure orbitan izan nahi dut astronauta mila izarren artean zuretzat bat hauta... Zurekin maitemindu al ninteke gauka? Zure edertasunak itsututa nauka".

"Zurekin hautsi nahiko nuke araudia eraikiz biok batzen gaituen zubia. Harribitxi bazina zinake "rubia" frutetan gerezia edo marrubia. Museo baterako a ze irudia... zure ezpainak eta zure ipurdia".

"Behingoz egin dugunez parez pare topo gorritu nahi zintuzket piropoz piropo... Batzutan maite zaitut bestetan gorroto nire pozoinentzako zaitut antidoto. Zugatik, zaitudanez benetan gustoko, koplaren baten bi aldiz egingo dut pota".

"Perfume usaineko zure izerdia, daukazun bizipoza eta energia... Ez naiz pareta galdu duen galtzerdia konpromezuak sortu ohi dit alergiaz hasi bedi elkarren arteko derbia zu naizelako nire laranja erdia".

"Zure ondoan egon nahiko luke nornahik denok desio dugu ausarta den norbait. Ez bazaitu asetzen hainbat lore alaik isilik egongo naiz ez zaitezten gogait Instagramen jarriko dizkizut mila "like" zu gabe bizitza ezinezkoa zait".



Gorputza aldatzen joaten da bizitzan zehar, dena aldatzen den bezalaxe.

Gorputz guztiek dute beren edertasuna.

Hautzaroko, gaztaroko eta zahartzaroko gorputzetatik zer da gehien atsegin zaiguna?



NERABEZARO BETEAN



Unai
Iturriaga
Zugaza- Artaza



Doinua:

Baserrian jaio nintzan

Neurri berezia

Bizitzan dena ez da lore eta edertasun...

Nerabezaro betean
eta nortasun krisian
galtzerdi baten zulotik
munduari ihesian
"Hemen nago!" bat gatibu
hortzek osatu hesian
flan baten sendotasunez
eguneroko bizian
pila bako robot bat naiz
hemen jaiki ta jausi han
horren lekuz kanpo nola
traktore bat poesian
txakur gorotz bat airean
grabitate gabezian
orbitatik kanpo nabil
DBH Galaxian.

Ta nire gorputz hau zer da?
Goma2a, dinamita?
Hormonen ring-ean lehian
fisika eta kimika.
Burua eta gorputza
kuter batez ebakita
sentitzen naiz inon ondo
itsasten ez den Post-ita
galtzontzilo bat lurrean
fosiltzeraino utzita
kulero bat goi-tentsio
kable baten eskegita
maniki bat bezain zatar
harri bat bezain polita
ez egin barre berdintsu
gabiltzala badakit-ta.

Nor ez da sentitu inoiz
lurreko txikleen pare?
Euli bat mokordo baten
sagar batean zizare
puzker bat *blowing in the wind*
wifi bidez sare sare
toki guztietan traba
egiten duen zutabe.
Sudurra pintzaz itxita
edan behar den edabe
hori omen da bizitza
ta gu bizitzan nerabe
erabat maite ez dugun
geure buruaren jabe
elkar onartuko dugun
esperantza galdu gabe.



Azpimarratu ditzagun bertsoetan gehien gustatu zaizkigun esapideak.

UMORE GANBERROA

Mekabenzotzak eta sentimendu marroiak adierazteko modu berriak asmatuko ditugu, umoretik. Baina adi: umorea nondik egiten dugun zainduko dugu, elkarrekin barre egin dezagun, eta ez inoren bizkar. Elkarrekin barre egiten dugunean lagun sentitzen gara, eta umorea askatzailea izaten da. Inoren bizkar barre egiten dugunean, minduta sentitzen gara, eta umorea baztertzailea izaten da.

ZERA BAINO ZERAGO

 Lotu dezagun esaldi bakoitza dagokion bukaerarekin:

- Zakur berde bat perillarekin BAINO... 1 zaharragoa
- Harri-jasotzaile bat watsappa idazten BAINO ... 2 itsusiagoa
- Jesukristoren amona BAINO ... 3 lehunagoa
- Bost ume jaioberriren ipurdiak BAINO... 4 lehorragoa
- Ehun urteko dortoka makuluekin BAINO... 5 motelagoa
- Espermatzoide bat Red Bull edanda BAINO... 6 arraragoa
- Putrearen azazkalak BAINO... 7 zailagoa
- Auzoko mozkorrak sagardotegian muztioa eskatzea BAINO... 8 baldarragoa
- Supermanen maila gaineko galtzontzillo gorriak BAINO... 9 erridikuluagoa
- Pintxo-poteko azken xerra enpanatua BAINO... 10 azkarragoa

 Asma ditzagun orain guk ZERA BAINO ZERAGOKOAK!

- BAINO zimurragoa
-BAINO errazagoa
-BAINO arriskutsuagoa
-BAINO aspergarriagoa
- BAINO harroputzagoa

ANTZARAK FERRATZERA

Inor *pikutara bidaltzeko*, sortu ditzagun molde berriak!

ZOAZ...

- Txirritari bi alkandorak plantxatzera!
- Txanogorritxorekin loreak biltzera!
- Angulak orraztera!
- Asegarcera, pilotak ukitzera!
- Infernura, eta gasolina eraman!
- Eiffeleko orratz puntara, oinutsik, eta eman pauso bat aurrerantz!

-
-

TITIETARAINO NAGO!

Kokoteraino gaudela, nola esan?

- Txirlako tximetaraino nago!
- Kivietaino nago!
- Matxixako puntaraino nago!
- Altzürüküko azkenengo ü-raino nago!

-
-

IKUSIKO DUN/K!

NIK HARRAPATZEAN...

- kenduko dizkizut bizkarreko hotzak!
- joango zaizkizu sasi arteko azkurak!
- emango dizudan belarrondokoarekin, paretak emango dizu bigarrena!
- potroak espartzu sokaz lotu, eta Iturengo joaldunetara bidaliko zaitut, antxintxika!
- nork-nori-nor tabla osoa erreparatuko dizut!
- begirik gabeko emotikono bat izango da zure aurpegia!

-
-

PIROPOPOSTA!

Jar gaitezen Bilintx. Piropoak asmatuko ditugu.
Molde bat har genezake eredu, eta tankerakoa asmatzen saiatu.
Bestela, libre-libre!

ZUGATIK...

Zugatik balea bat hilko nuke txankletazoka.

.....

ZU ZARA NIRE...

Zu zara nire Iberdrola!

.....

ZU ZARA...

Zu zara aldaketa klimatikoaren arrazoia.

.....

ZU BAZINA A ETA NI BANINTZ B...

Zu eguzkia bazina eta ni ilargia, a zer maitasun eklipsea!

.....

NI X BANINTZ...

Kakalardo pilotagilea banintz, egun osoa zuri bueltaka pasako nuke.

.....

ZU X BAZINA...

Zu kurriloa bazina eta migratuko bazenu, zurekin joango nintzateke hegan.

.....

ERRIMATUZ

Goxo-goxo, panpoxo

.....

ESAERA ZAHARRAK BERRITUZ

Zaudenean bonbon, ez zaudenean neu konpon.

.....

LIBRE-LIBREANI!

.....

.....

.....

.....


.....

.....

.....



Hara hemen bi egoera. Patxi Gallegok asmatu du piropoak eta *kabenzotzak* marrazkiz esaten. Ea guk asmatzen dugun azpigituluak jartzen!



BERTSO SORTAK

Goza dezagun bertso jarriekin.

Ea ze mintzagai ematen digun sorta bakoitzak gelan aztertzeke eta elkarrizketan aritzeke.

Doinuak ere ikasiko ditugu, neurri eta kolore ezberdinetakoak.

Gero gure bertso sorta egin genezake, eredu hauetako bati tiraka nahi bada...

Zabaldu birikak eta belarriak!





**Xabier
Terreros
Gartzia**



GAU BELTZA



Doinua:
*Hamalau heriotzena I
Hamarreko txikia*

Urriaren hogeita
hamaika **heldzean**
sorgin-arrats, arima
hilen gau _____
kalabazak, arbiak
hustu _____
ikusi ezinean
kandelak _____
arima erratuak
itzalen **atzean.**

Oinak: jartzean, beltzean, baratzean

Herri bakoitzak bere
erritual **fedea**
ta ohiturak garatu
ditu mendez _____
nahiz sortzeak hiltzea
duen beti _____
zer dela ta ez gara
ausartzen _____
Heriori zeharka
begiratzen **ere.**

Oinak: lege, mende, behin ere

Arratoiaren begi
apoaren **bihotz**
saguzarraren buru
laban, sega, _____
"ziri edo sari" oihu
aldaba zaharrak _____
terrorezko maskarak
ipinita _____
norberaren ikarak
ezkutatu **asmoz.**

Oinak: gatoz, joz, aihotz

Eskaparate oro
eder **dekoratuz**
guztia dago salgai
trukoz eta _____
utik! Goazen kalera
bertsoak _____
beldurrezko kondaira
ahaztuak _____
etxean ditugun lau
trapu zahar **hartuz.**

Oinak: tratuz, kontatuz, kantatuz

Estatu Batuetan
nahiz ezagun **egin**
zeltiarrek bezala
hemen ere _____
kalabazak, maskarak
kandelei _____
izaera antzeko
ta izen _____
aspaldi ospatzen da
gurean **Halloween.**

Oinak: desberdin, eragin, berdin



Bertsoei oinak falta zaizkie.
Ea puntu bakoitzean oin egokia
hautatzen dugun!



Goazen aitona-amonei galdetzera.
Haur zirela nola ospatzen zuten gau beltza?



MARTXOAREN 7AN JARRIAK



Arkaitz
Zipitria
Mendizabal

Berto
sortak

Egun bereziz bete
da **egutegia**
salatzeko pertsona
askoren _____
kolore gorria da

baina nekez gorritzen
zaigu _____

nabarmenegia, egia, aurpegia

Etxean, nork jartzen du
sutan **lapikoa?**
Zenbat aldiz egiten
duzu _____?
Erraz askatzen dugu

baina gero egiten
dugu _____


betikoa, hieroglifikoa, harrikoa

Nork garbitzen du zure
txanodun **jertsea?**
Nork txukuntzen du gela?
Eta nork _____?
Aurrerapausoa da
lana _____
ta noizbehinka bestea
sofan _____

esertzea, etxea, eskertzea

Noren gain gelditzen da
zaintzea **amama?**
Triste baldin bazaude
nor doa _____?
Nahiz eta maitasunez
egin zaintza _____
banatzen ez denean
bihurtzen da _____

zama, zugana, lana

 Gure etxean bizi diren gizonak
zein etxeko lan egiten dituzte?



Doinua:
Ene Lukas maitea
Zortziko txikia

Azala laztantzea
da keinu **goxoa**
baita muxukatzea
aurpegi _____
besteak ez badu nahi
dator _____
oparia bihurtzen
baita _____

osoa, erasoa, arazoa

“Vaya pedazo tetas”
esaten **denean**
ez dugu hitz egiten
modu _____
Zerbait aldatuko da
titien _____
pertsona bat ikusten
dugun _____

parean, onenean, egunean

Martxoaren 8an
morea **nagusi**
urtean zehar ezin
al da _____?
Jokabide matxistak
bazterrean _____
eta urte osoan
jarrerari _____!

utzi, eutsi, erakutsi



**Ander
Elortegi
Garatea**



URAREN ZIKLOA



Doinua:

*Ilun ikarak azken argia
Zortziko handia*

Ura da Lurra planetan zehar dagoen gai **magikoa** gardena eta H₂O da egitura **kimikoa**. Jatorria zein den jakitea denez **berebizikoa** aterkipean ikas dezagun zein den **URAREN ZIKLOA**.

Ur geruzara heltzen denean eguzkiaren **distira** ur molekulak aztoratzeko beroa lagungarri da. Hortik sortzen den gasak duenez gorantz joateko **desira** kondentsatzen den lurrunarekin hodeiak osatzen dira.

Hodeiak daude ur tantaz edo izotz kristaltxo **eginak** baina airean mantentzen dira baitira oso **arinak**. Loditzen ditu tenperatura hotzagoen **eraginak** eta horrela sortu ohi dira zaparrada **desberdinak**.

Eurite gogor, zirimiria, txingorra edo **elurra**. Ibaia igo, lakua bete edo zuritu **gailurra**. Eguraldiko mapan tanta da Euskal Herriko **ikurra** horri esker da hain eder eta aberatsa gure **lurra**.

Makineria zoragarria izan daiteke **natura**. Sarri begira egoten gara itsasora zein **zerura**. Batzuk soberan ta beste batzuk faltan daukatenez **ura** behar bezala erabiltzea da gizakion **ardura**.



TALDE LANEAN



Aitor
Mendiluze
Gonzalez



Doinua:
Sorlekua utziz geroz
Neurri berezia

Berto
sortak

Bi kideren artean egin behar zuten taldeko lana. Baina batek egin du lan guztia...
Nola bukatuko ote da bien artekoa?

HAMAIA

Bukatu dut lana eta
ez daukagu **aldatzerik**
baina zure jokaerak
odola sutan **jartzen dit**
ez baitut lortu zati bakar bat
zuk egiteko **hartzerik**
orain ez duzu esperoko ba
bion izena **jartzerik?**

AMAIA

Ez da bion lana beraz
ba ados **honenbestean**
bion izenak jartzeko
ez dut segiko **eskean**
fotokopia bat egigun eta
izenak jartzen **hastean**
zuk jar ezazu batean eta
nik jarriko dut **bestean**.

AMAIA

Zuk lana egiten duzu
hasi eta **berehala**
ezer egiteko ez dut
denborarik izan **hala**
baina esan ez dezazun lanak
nire ezer ez **daukala**
agintzen dizut nire izena
neuk idatziko **dudala**.

HAMAIA

Ez al duzu esan behar
gauza kabalik **sekula?**
Benetan uste al duzu
horrekin aski **duzula?**
Fotokopia bat aurkeztu eta
ondo irtengo **zaizula?**
Irakaslea ohartuko da
kopiatu **didazula**.

HAMAIA

Orain gainera zer zatoz
niri barre **egitera?**
Pentsatu hau izan dela
zuretzat azken **aukera**
zure izenik gabe utziko
dut portadako **papera**
eta pentsatzen hasi zintezke
hemendik nola **atera**.

AMAIA

Nik kopiatu dudala?
Ez zinen zu **izango ba?**
Nola jakin zeinek zeini?
Nola lortu horren **froga?**
Nahi ez baduzu biok uztea
froga honetan **kanpora**
jarri ezazu bion izena
hoberena **izango da**.



Talde lanean ari garela, batzuei inizatiba hartzea kostatzen zaie, eta zain egoten dira, eurei zer aginduko. Beste batzuek, aldiz, dena bikain egon dadin kontrolatzeko beharra sentitzen dute, eta kosta egiten zaie kideei parte hartzen uztea. Guri zer kostatzen zaigu gehien?



**Ander
Lizarralde
Jimeno**

IRAKASLEA

Egunon ikasleak!
Zer moduz **zaudete?**
Gaur nahiz eta badugun
zeregin **dexente**
itxi liburu denak
ez orririk **bete...**
Honi buruz hitz egin
nahiko **nizueke:**

Begiratu Mikelen
eserleku **hutsa**
bera da orain dudan
kezka honen **funtsa**
aspaldi triste ditu
bihotz ta **gorputza**
uste dut behar dula
gu denon **laguntza**.

Gutxienez badira
bost edo sei **aste**
gelan falta ohi dena
agertzen den **beste**
zuek ere pentsatzen
ipini **zaitzete**
aspaldian zergatik
falta den **hainbeste...**

Agian da birus bat
hartu **duelako**
edo besterik gabe
alfertu **delako!**

IRAKASLEA

Ta izan al daiteke
zuen **usterako:**
gure artean ongi
ez **dagoelako?**



BEHAR DUENARI LAGUNDUZ



Doinua:

**Urzo xuri pollit bat A /
Lili bat ikusi dut I
Zortziko txikia**

IRAKASLEA

Ohartu egin zara
ta asko da **Beñat!**
Ez zaitzete gaizki
sentitu **erabat.**
Mikel poztu dezagun
ideia bat **daukat!**
Egingo al diogu
ongi **etorri bat?**

Mikel hola zaintzea
gauza ederra da
bi helburu beteko
baititugu **hara:**
Hobeto sentituko
zaigu **beharbada**
ta gu ere hobeto
sentituko **gara!**

Agian dago samin
ta minez **beteta**
jaso ez **duelako**
gu denon **arreta.**
Besteak ere gaude
harekin erreta
beti guri burlaka
aritzen da eta!

IRAKASLEA

Esaten duzuen
egia **izaki**
ez dizuet jarriko
hamaika **aitzaki**
zuekin egiten du
maiz akats **galanki**
baina beste inola
hurbiltzen ez **daki.**

Zein arazo dabilen
bere **bihotzean**
jakingo dugu bere
lekuan **jartzean**
ta zer gertatzen zaion
imajinatzean:
Agian arazoak
dituzte etxean...

Agian gurasoak
doaz **banatzera...**
Ama botako zuten
lanetik kalera...
Edo gaixorik dauka
anai edo **arriba...**
Zergatik utzi dugu
hain aparte bera?



Denoi ere, etxean gertatzen diren gauzek asko eragiten digute.

Gogoratzen al dugu etxeko gairen batengatik kanpoan lehertu ginen momenturen bat?



AURKITU DITUZTE



Arkaitz
Estiballes
Ormaetxea



Doinua:

*Mundu hau uzten bazun
Hamarreko txikia*

Berto
sortak

Maddik sukaldean negarrez ikusi du amama. Aitarengana joan da Maddi, laguntza eske.

MADDI

Goizero eskolara
poz-pozik narama
gaur nik atera diot
etxeko _____
elkarbanatu dugu
erosketen _____
baina zeozer gaizki
egin dut ai _____!
Sukaldean negarrez
baitago amama.

ama, zarama, zama

MADDI

Nik aititeri buruz
askorik ez dakit
badakit joan zela
gaztetan _____
aspaldian izan zen
gerra _____
baina nola hil zuten
non eta _____
ez didazue ezer
kontatu oraindik?

etxetik, zergatik, batengatik

MADDI

Dena ulertu dudan
ez nago seguru
irakurriko ditut
hiru-lau _____
eta hitz egiteko
egunak _____
baina aita, aitite
zeinek _____?
Eta amamarekin
zer egingo dugu?

ditugu, aurkitu du, liburu

AITA

Zure errua denik
alaba ez uste
ez dizugu kontatu
orain arte _____
baina duela gutxi
dei egin _____
eta pasa ostean
horrenbeste _____
aititeren hezurrak
aurkitu dituzte.

digute, guk be, urte

AITA

Hogeita hamazazpian
joan zen gerrara
kontatu digutenez
Lemoatx _____
sorpresaz heldu ziren
bere _____
tiro eman zioten
bertatik _____
baina gu ere orain
enteratu gara!

trintxerara, bertara, puntara

AITA

Lanean elkarte bat
dabil, Aranzadi
aurkitu dituen
hildako _____
baina hau kontatuko
dizut bihar _____
orain sukalderaino
hurbildu _____
eta musu handi bat
eman amamari!

Maddi, ugari, kantari



Etxean zer kontatu digute 36ko gerraz? Gure senideek zer-nolako bizipenak izan zituzten?



Aitor
Arrutia
Azkueta

Idoia
Anzorandia
Kareaga



HERIOTZAREN AURREAN



Doinua:
Beste bateko inularretan
Zortziko handia

Bi egun dira aitite hil zela.
Bukatu da azken agurra eta neba-arrebak etxera itzulita, hizketan hasi dira.

NEBA

Gure aitite hil zitekeenik ezin nuen **imajina** itxaropenez beti izan du bizipoza eta **grina**. Ezin dut jasan gure ondoan ez egotearen **mina** aurrerantzean gure bizitza ez da izango **berdina**.

ARREBA

Aitite joan da eta nolabait umezurtz sentitzen **gara**. Tristurarekin iraganera botatzean **begirada** ume garaian, gazte garaian zenbat barre ta **algara**. Orain hutsune hoiekin ere bizitzen ikasi **behar** da.

NEBA

Ez gintuela inoiz utziko egina genuen **tratu** orain joan da eta ez dakit ahalko dudan **barkatu**. Bere altzoan nahi dut berriro babestu eta **lokartu**... Igarotako momentu denak ezin ditut **ordezkatu**.

ARREBA

Orain normala da sentitzea amorru ta **oinazea** kontua ez da ordezkatzeta baizik eta **oroitzea**. Bere lana ta irakaspenak gerora **baloratzea** hoiek guztiek bete dezaten familiaren **etxea**.

NEBA

Etxea hutsik sentitu ohi dut bera oroitu **orduko** orain minduta sentitzen naiz ta ez al duzu **ulertuko?** Zaindu ninduen ta zaindu nuen sentitu dut hain **gertuko**... Gure aititek alde egin du eta ez da **bueltatuko**.

ARREBA

Ezin duzunik minik sentitu hori ez nizun esan **nahi**. Zure amorru eta tristura gauza normalak dira, **bai**. Laster aitite gure artean oroituko dugu **alai** gaur bitartean, zatoz ondora ta egizu negar **lasai**.



Aititeren agurrean izan dira neba-arrebak.
Azken agurra emateko zer-nolako moduak ezagutu ditugu guk?
Hurbileko norbait hil zaigunean, joan nahi izan dugu haren hiletara, beilategira, hilerrira edo errautsak zabaltzeko unera?



AITAREN BIKOTEKIDEA DATOR ETXERA



Xan
Alkhat



Doinua:

Gu gazte ginadela

Zortziko txikia

Aitaren bikotekide berria agertu da etxera.
Alabak bere ama zena oraindik gogoan, ez du begi onez ikusten...

SEMEA

Aitak lagun berria
du ta ze **trantzea!**
Zuretzat dira beraz
aita ta **etxea**
haur batentzat zaila da
amaren **galtzea**
ez zazu pentsa bere
lekua **hartzea!**

SEMEA

Dena iluntzen baita
bai **heriotzean**
ama joan denetik
bizi naiz **hotzean**
nigar egiten dut nik
hartaz **oroitzean**
beti bizirik baita
nire **bihotzean**.

SEMEA

Gau eta egunez naiz
ni hartaz **oroitzen**
zenbat aldiz parkean
ginen gu **jostatzen**
uda betean zenbat
izozkiz **asetzen**
ene ama maitea
ama **onena zen!**

AITAREN BIKOTEKIDEA

Gertatu dena hartu
beharko da **aintzat**
baina elkartu dira
gu bien **bihotzak**
ez dut bere lekua
hartu nahi **behintzat**
soilik nahi nuke leku
ttipi bat **niretzat**.

AITAREN BIKOTEKIDEA

Min uxatzaile ona
da berez **denbora**
baina tristurarekin
ez zaitez **aztora**.
Egunero ekarri
zuk ama **gogora**
ta bizi direnekin
beti **biziko da!**

AITAREN BIKOTEKIDEA

Nahi dut zure aita ta
zure **zoriona**
amaren orde ez naiz
etortzen gaur **hona**.
Ni zuretzat zer naizen
galdera **sakona**...
entzun ezazu zure
barruak **diona**.



Josu
Telleria
Uriarte



ETORKIZUNAK ITOTZEN NAU



Doinua:

*Agur sagar beltzeran
Hamarreko txikia*

Hamasei urte ditut
amarentzat **ume**
garauak aurpegian
hainbat **gorriune**.
Aldarteak aldatzen zait
sarri, unez **une**
superheroia ala
apal eta **xume**
ta ikasketak dira
bizitzaren **gune**.

Nire zain omen dago
hor **Batxillergoa**
Zientziak, Gizartea
ta **Artistikoa**
edota hartuko dut
halako **Zikloa**
notekin kalkulatu
batez **bestekoa**
erabaki behar ta
denbora **badoa**.

Baina zer aukeratu
gakoa hor **dago**
ezin dut hau luzatu
denbora **gehiago**.
Gurasoek Uni-a
lukete **nahiago**
eta nik zer ez dakit
galduta **zeharo**
kaixo heldutasuna
agur **umezaro**.

Unibertsitateak
makina bat **arau**
Lanbide Heziketa
zertarako da **hau?**
Presiopean nago
familia, **enparau...**
lorik ezin eginda
daramat hainbat **gau**
nire etorkizunak
ito egiten **nau**.

Barrutik sentitzen naiz
nekatuta, **zisko!**
Ardurak hartzen dakit
baina ez naiz **harrizko**
bide bat hautatzeko
zenbat **amesgaizto**
dudan adinarentzat
asko, **gehiegizko**.
Ba orain erratzen banaiz...
aldatu ta **listo!**



Guk ba al dakigu zer-nolako ikasketak edo lanbidea eduki nahi dugun?



ITSASONTZIAREN KANTUA



Josu
Landeta
Egurrola



Doinua:
Azken arnasa eman nahi nuke
Hamarreko handia

Berto
sortak

Leiho ertzetik gabiltzanean
itsasoari **begira**
abenturaren grina sartzen da
gure bihotzen **erdira**.
Aita-amengandik aska gaitezen
gogo tiraka **ari da**
mugak eraitsiz nahi genioke
eman munduari **bira**
baina ur handi sakon horiek
engainagarriak **dira**.

Uretan intxaur oskolak legez
mila eginbeharren **kolpez**
sarri klasean gogoz gabiltza
sarri istiluetan **nekez**.
Gora eta behera ibili arren
zabu mugimendu **batez**
saiatu izana ez da izango
inoiz ere gure **kaltez**
urterik urte sendotuz goaz
gure lanaren **bitartez**.

Ur handiotan segi beharra
benetan maiz da **gogorra**,
horren samurra ez baita izaten
gure umore **aldakorra**.
Pentsa munduko erdigunea
ez dela gure **zilborra**.
Geure nortasun gotorretatik
harturik **bidezidorra**
elkar onartuz baietz aurkitu
desio dugun **altxorra**.


Inoiz edo behin gure artean
zabaltzen da **arrakala**
kaioak legez hegan badator
haserrearen **itzala**.
Hautsitakoa konpondu nahia
ez da irtenbide **makala**
enbata ostean dastatuz gero
maitasunaren **zabala**
elkar hartuta senti gintezke
arraina uretan **bezala**.

Bizitzan zehar aurrera goaz
menturazaleen **antzera**
gure ahaleginez helduko gara
amesten dugun **lurrera**.
Olatuaren txanpa hartuta
begiratu **iparrera**
maite gaituen jendea lagun
izango dugu **aukera**
itsasontzian bidaiatzeko
nahi dugun portu **onera**.



Kantuan agertzen zaigun itsaso hori, zer ote da?

BERTSO SORTA



Doinua:



Gure bertso sorta idatziko dugu.

Zein gai bistarazi nahi dugu?

Ikusi bezala, aukera asko dugu: eskolako ikasgaiak bertso tara eraman, gure barne kezka azaleratu, gizarte gaiei jarri arreta...

Noren ahotik hitz egingo dugu? Eta zer-nolako mezua emateko?

Sortaren egitura, bertsoz bertso

1



2



3



4



5



6



7



8



Bertso sorta

A series of horizontal dotted lines for writing.

Bertso
sortak

Bertso sorta

A series of 20 horizontal dotted lines for writing.

BELDURRA LAGUN

Lan ederra egin dugu ikasturtean zehar.

Orain, jendaurreko gure emanaldia prestatzen hasiko gara.
Agertokira irten beharko dugu, kideen eta gurasoen
aurrera, gure lana aurkeztera.

Lotsa eta beldurra izango ditugu lagun.
Baita amorrua eta poza ere.
Erronka bat da. Aukera baliatu
genezake geure burua ezagutzeko.
Gure lotsarekin eta beldurrekin adiskidetzeko,
eta bidean aurrera egiteko, bakoitzak
ahal duguneraino.
Emozioekin surfeatzea eskatuko
digun erronka da. Saiatzeko prest?



POZA EKINTZARA GARAMATZAN IBAIA

Poza sentitzea gustagarria zaigu.

Dibertsioa, gozamina, sormena, argia, bakea... gure barne orekaren momentua da.

Are gehiago, poza gure helburu nagusia da askotan, egiten ditugun gauza asko gozamen hutsez egiten baititugu.

Gizakia ekintzara bideratzen duen motor garrantzitsuenetakoa da.

Pozaren adierazpena irribarrea da.





XOMORRO POZAK



Doinua:

Gizona da zoroa
Zortziko txikia



**Uxue
Alberdi
Estibariz**

Zer da plazer txiki hau
bertso **berrietan?**
Xomorroak al zaizkit
hasi **errietan?**
Azkura eginez oin
eta **gerrietan...**
Urduri jartzen dira
udaberrietan!

Eskurtsio bezperan
ohean, **irrikan**;
maiteminduen ezpain
ertzeko **irritan**;
udalekuetara
iritsi **berritan...**
pozak marrazten dizkit
tximeletak **tripan.**

Ahaztu azterketak,
partiduak, **krosak!**
Ametsez ta musikaz
bete **altabozak**
mantapean irentsi
nazala gaur **sofak!**
Kiribildurik nauka
kukurutxa-pozak.

Gol bat sartu ondoren
Lionelen **posez**
pizza bat afaltzea
kirolari-gosez
mezu bat jasotzean
lau bihotz **arrosez...**
Nola ez jauzi egin
matxinsalto-pozez!

Lagunen ezkutuan
arratsa **oskorri**
sekretuen txokora
egin dugu **korri...**
Musu bat eman diot
bi masailak **gorri...**
Marigorringo-poza
deitzen diot **horri!**

Bertso, ipuin, margolan...:
giltza eta **ate**;
plazer ematen didan
kreatibitate
hau inurri-poza da
buru ta **hankape**
ideiek kili-kili
egiten **didate.**

Ilargi bete zero
zelaian **kanpina**
lagunen kantu-hotsa
eta **kriskitina**
lo-zaku berean bi
sartuko **bagina...**
Kilkerren poza zer den
ezkutaezina!

Egun arrunt bateko
iluntze **arrosa**
niretzat lerrokatzen
denean **kosmosa...**
Espero ez dena da
plazer **baliosa...**
Horri deitzen diot nik
ipurtargi-poza.

Gurasoei gabon
musu ta **adio**
telebista bat urrun
gaua **marmario.**
Gorputz bat adiskide
eta **kontrario...**
Erlearen pozari
eztia **dario.**

Pozak badaki hegan
guk baino **gorago!**
Hanka ugari ditu...
edo bat **gehiago!**
Ezkutatuko balitz
xomorro, **pikaro...**
Zuk ikusi ez arren
beti hortxe **dago.**



Xomorro poz handiz eta txikiz beteta dago bizitza.
-Bizitzako zein une berezitan sentitu nintzen poz-pozik?
-Eta egunerokoan, zer gauza xumek pizten didate poza?

AMORRUA OZTOPOEI AURRE EGITERA GARAMATZAN IBAIA


Amorrua gure gorputza aktibatzen duen energia da.

Aktibazio horri esker ekiten dugu zailtasunen aurrean, ekintzarako, borrokarako, besteen aurrean gure espazioa babesteko, beldurrei aurre egiteko... prestatzen baitu gure gorputza.

Amorruaren adierazpena eraso da (hitzezkoa edo gorputzezkoa).

Haserretzea ez da arazoa: beharrezkoa da. Amorrua sentitzea onartu egin behar diogu geure buruari, erronkei aurre egiteko ezinbestekoa baita.

Gakoa da nola baliatu amorruaren indar hori, onerako izan dadin.





ZAPATA KAXA BATEAN



Doinua:

Libre zara libre aitte

Kopla. Hiru puntukoa



**Miren
Amuriza
Plaza**

Kamiseten **apalpean** (bis)
galtzerdi zaharren **artean**
nire amorrua bizi da
zapata kaxa **batean**.
Zapata kaxa batean
kamiseten apalpean.

Ni lasai baldin **banago** (bis)
bera lozorroan **dago**.
zurrunga eta zurrunga
katu bat baino **otzanago**.
Katu bat baino otzanago
ni lasai baldin banago.

Ni baldin banago **artega** (bis)
kaxoitik burua **atera**
eta hortzak erakutsiz
marruka hasten **da bera**.
Marruka hasten da bera
ni baldin banago artega.

Asko ikasi eta **gero** (bis)
urtero, hileru, **astero**...
Harramazka egiten dit
nota baldin **bada zero**.
Nota baldin bada zero
asko ikasi eta gero.

Jartzen banatzaio **kontra** (bis)
hasten da almoada **borroka**
eta tigreak baikin
amaitzen dugu **orroka**.
Amaitzen dugu orroka
jartzen banatzaio kontra.

Kalkulatzen zein **idazten** (bis)
berriro ere ni **azken**...
"Utzi koplak!" esaten dit,
eta jar zaitez **ikasten**.
Eta jar zaitez ikasten,
kalkulatzen zein idazten.

Hala ematen diot **buelta** (bis)
buruketaz **buruketa**
berari esker ez balitz
etsi egingo nuke **eta**.
Etsi egingo nuke eta
hala ematen diot buelta.

Orduan jolasten **gara** (bis)
biok **ezkutaketara**:
bera ohera sartzen da
ni galtzerdien **kaxara**.
Ni galtzerdien kaxara
orduan jolasten gara!



Amorrua sentitzea ere behar-beharrezkoa zaigu, egoera horri aurre egiteko indarra ematen baitigu.

Gu zerk amorrarazten gaitu?

Eta zertarako ote da beharrezkoa, egoera horietan, amorrua sentitzea?

TRISTURA GURE BAITARA GARAMATZAN IBAIA

Tristurak barruan min dugula adierazten digu, edo guretzat garrantzitsua den zerbait galdu dugula. Emozio horri esker, gure baitara biltzen gara eta geure buruarekin egiten dugu bat. Horrela, besteek eta gauzek guregan duten balioaz ohartzten gara eta haien zaintzera garamatza. Min eman digun horren gainean hausnartzen dugu eta geure burua zaintzeari ekiten diogu: laguntza eskatzen dugu, egindako hutsaren konponbideetan pentsatzen dugu, dagokionari barkamena eskatzen diogu...

Tristuraren adierazpena negarra da. Negarrak min hori kanporatzen laguntzen digu, eta bide batez, besteengana gerturatzen gaitu, orduan estimatzen baititugu gehien besarkadak, mimoak, animoak...





TRISTURARI



Doinua:

*Hemen zizurkildar bat
Hamarreko txikia*



Igor
Elortza
Aranoa

Zer ote zen tristura
ez **nekienean**.
iseka egin nizun
goibel **zeundenean**.
Nigandik urruntzen joan
zinen **azkenean**.
huts hori igarri dut
gaur **aldamenean**
mina sentitu arte
barren-barrenean.

Hau da, beraz, tristura
barreneko **mina**
laguna, zu irainduz
neuri **eragina**.
Barkatuko bazenit
burlaizez **egina**.
hau konponduta, berriz
bi lagun **bagina**.
berdin du, baina ez naiz
izango **berdina**.

Ongi etorri tristura
negar eta **malko**.
zuri min ematean
mindu **naizelako**.
eta eroriz egin
dudalako **salto**
ni zu lako bihurtuz
eta zu ni **lako**.
bioi buruz gehiago
jakin **dudalako**.

Mila esker tristura
huts, min eta **zauri**.
eta hari hainbeste
mila esker **zuri**.
Barkamen eske joan
natzazu **urduri**.
barruko indar batek
agindu dit **"mugi!"**
irribarrez eskertu
dizkizut **musu bi**.

Agur orain, tristura
joan dadila **lasai**.
berez desager zedin
ez naiz geratu **zai**.
etsia ez bainuen
hartu gura **etsai**.
Neurez naiz zailtasunei
aurre egiteko **gai**.
eta ez dut tristuran
kateatzerik **nahi**.

Hurren arte, tristura
nahikoa dut **jada**.
urrunxeago edo
bertatik **bertara**.
lehenago, geroago...
ikusiko **gara**.
eta berriz esango
dut gaurko **erara**.
bizitzea gogorra
eta ederra **da**.



Igorri gertatu zaion bezala, gu ere tristurak eraman al gaitu noizbait puskatu duguna konpontzera? Edo barkamena eskatzera, harreman bat berreskuratuzera?

BELDURRA ARRISKUAN GAUDELA ABISATZEN DIGUN IBAIA

Beldurrik gabe ezinezkoa litzaiguke bizirik irautea.

Arriskuan gaudela ohartarazten digu, eta geure burua salbu jartzera garamatza.

Beldurrak bultzatzen gaitu bidean onik irten gaitzen neurriak hartzera.

Beldurraren adierazpenak dira negarra, gorputzeko tentsioa eta eraso egitea (gorputzez).





BELDURRARI



Doinua:

*Zure bular politik
Zortziko txikia*



**Beñat
Gaztelumendi
Arandia**

Ai, beldurra bakarrik gaude **azkenean** gelan, autobusean, kalean, **trenean** ez didazu zauririk sortzen **barrenean** parez pare begira jartzen **naizenean**.

Zer ote zaren ez da erraza **jakiten**: zakur handi bat dena nire bila **irten** nahiz sabel barrenean duzun **eragiten** zaunkak zaunka ez duzu hozkarik **egiten**.

Itzal ilun bat zara nigana **begira** auto beltz bat igoa espalo **erdira** soka bat eztarrian tira eta **tira...** Beldurrik ez dutenak ausartak al **dira?**

Agertzen zara gauak direnean **laino**: sentiarazten nauzu txiki, ahul, **ñaño**. Nahiz parean zutitzen zaren **zeruraino** urruntzean ez zara koskatxo bat **baino**.

Orain beldurra diet hainbat **harremani** entzuten ez ditudan hamaika **esani...** Dardarka jarri arren azal eta **mami** nirekin zaramatzat baina ez **zara ni**.

Beldurra diot tunel ilun, luze **horri** egunsentiak jaiki direnean **gorri** azkar ibiltzen zara korri eta **korri**: behin joaten zara eta bi aldiz **etorri**.

Zurekin aurkitzea hain arrunta **baitzen** nahiz haseran indarrak zitzaizkidan **ahitzen** zu sentitu arren dut aurrera **jarraitzen** zuri esker baitakit zein ausarta **naizen**.

Beti ez dut ematen pausoa **seguru** baina behin ipinita biok **buruz buru** denborak hurbileko egin baikaitu **gu** elkarrekin bizitzen ikasiko **dugu**.

Beldurra ez da umeen gauza bat, ez eta koldarrena ere. Beldurra bizitza osoan izaten dugu lagun.

-Nik zeri diot beldurra?

-Nire bizitzan beldurrik handiena sentitu nuen egoera zein izan zen? Eta nola erreakzionatu nuen?

-Galdetu diezaiegun etxeko helduei: umetan zeren beldur ziren? Orain zeren beldur dira?

BELDURRARI AURRE EGIN BEHAR DIOGUNEAN...

Batzuetan, hainbeste beldur diogun horri AURRE EGITEA beste irteerarik ez dago. Eta erraldoiaren aurrean ipotx sentitzen gara. Aurre egiteko, indar handia beharko dugu. Horretarako, beldurrak barru-barruan dugun amorrua piztuko digu. Amorrua Son Goku-ren *kamejame* bola da guretzat: energia emango digu, indarra, erraldoiari aurre egiteko.



Amets
Arzallus
Antia



TXORIMALOBURUARI



Doinua:
Neguaz primadera I
Zortziko txikia

Sorta honetan, lore beldurtuak aurre egingo dio bere zapaltzaileari, Txorimaloburuari.

Aurre egitera ausartzeko, loreak amorru handia sentitu behar izan du.

Izan ere, zapaltzen gaituztenean, amorrua sentitzea ezinbestekoa zaigu, besteei mugak jartzeko.

Txorimaloburuak

Amak hainbeste tira ohi dit **belarria** ia ez daukat bere lekuan **jarria**... Ta ahanzteko etxeko ikara **larria** eskolan bihurtzen naiz **ikaragarria**.

Hemen aurkitu zaitut panpinatxo **galdu** zure sator muturrak irrik ez al **du?** Zer zabiltz, ez zazula malkorik **zabald**u egizu nik bezala beste bat **zapaldu**.

Lore beldurtuak

Besteek nire minak
ikus ez ditzaten
borreroa datorkit
aholku ematen...
Beste bat zapaltzeko
errex da esaten
denak ez gara horren
maltzurak izaten.

Zure mespretxu keinu
ta burlazko hitzen
oihartzunen taupadak
ez zaizkit isiltzen.
Izuak nau ahultzen
eta lotsak biltzen
bizitzeko gogorik
ez baitzait gelditzen.

Nerabezaroa da
nortasunen gerra
zu ni zapalduz egin
zaituzte liderra.
Besteen miresmenak
dakarzun plazerra
handia izango da
baina ez ederra.

Baina gaur esnatu naiz
atzo ez bezala
erantzi behar dizut
otsoen azala.
Beldurrezko ipuinak
libre utz nazala
jolastu zaitzte zu
ta zure itzala.

Txorimaloburua
zoaz baratzera!
Eta zu salbatzeko
inor zapaltzera
ez zaitez niregana
etorri atzera
zoaz zure ikarak
madarikatzera.

Bakardade pixka bat
ongi datorkizu
nik ahizpa zaharrago bat
dudala jakizu
niri hark lagundu dit
ez izaten izu
zuri ere norbaitek
lagunduko dizu.



Modu batera edo bestera, bizitzan denok hartzen ditugu hiru jokabide hauek.
Binaka jarriko gara, eta gure bizitzako 3 egoera gogora ekarri, hitz egin dezagun.

Erasotzaile paperean sartu nintzenean

- Zer sentitzen nuen?
- Eta zer egin nuen? Zer-nolako aterabidea eman nion?

Erasotu paperean sartu nintzenean

- Zer sentitzen nuen?
- Eta zer egin nuen? Zer-nolako aterabidea eman nion?

Ikusle paperean sartu nintzenean

- Zer sentitzen nuen?
- Eta zer egin nuen? Zer-nolako aterabidea eman nion?



TALDETIK KANPO GELDITZEKO BELDURRA

Batzuetan beldurra dugu taldeak eskatzen digun horri ezetz esateko. Eta haserretzen badira? Eta baztertzen banaute? Eta bakarrik gelditzen banaiz? Barruari entzutea garrantzitsua da: leial izatea geure buruari. Askatasuna horixe da: baietz edo ezetz esan ahal izatea. Eta askotan, besteei “ez” esatea da norik bere buruari “bai” esatea.



**Nerea
Ibarzabal
Salegi**



ETA APARTATZEN BANAUTE?



Doinua:
*Seme ezarri bainauk
Hamarreko txikia*

Lekua da parkea ordua, 17:30 gozokiak erosi bankutan **eseri** astebururo mila par eta **komeri** nahiz kuadrilla jatorra garella **ageri** gaur ere ez diogu hots egin **Leireri**.

Leire da beti lotsaz mutu **dagoena** gainera ez da Lurren lagunik **onena**... Baina gehiegixto da ez **deitzearena** isilik daude Markel, Xan eta **Elena**... Bakarra al naiz hori pentsatzen **duena**?

“Ez gure ostikaden ezta gure **hitzen** bidez ez dugu Leire inoiz ere **mintzen** ez mehatxu, ez irain ez ‘tonta’, ez ‘gizen’ beste gabe, ez gara berekin **ibiltzen**” pentsatu arren, ez naiz hobeto **sentitzen**.

Leialtasuna dugu kuadrillako **tratu** eurekin ibil nadin zapatuz **zapatu**. Leire ere gugana nahiko nuke **batu** ahalegintxo bat egin eta **gerturatu**... Baina ez dut nahi bere lekuan **bukatu**.

Taldearen aurrean kikildu ohi **gara** baina zelan baretu barruko **bulkada**? Mezu bat bidaliko diot gero, **hara** ze, zintzo jokatzea dakigun **erara** ausartak izateko beste modu **bat da**.

-Kaixo Leire, zer moduz?
-**Ei, Nerea, hola!**
-Aizu, etzi al dugu mateko **kontrola**?
-**Bai, ez dut gaindituko...**
-Nik ez dakit **nola**...
Ulertuko al du hitzei kenduta **oskola** barkamena eskatzen ari **natzaiola**.



Idea zaparrada egingo dugu: pentsa ditzagun konponbideak, denon artean. Zer egin genezake Nerearen lekuan bageunde? Eta Leireren lekuan egonez gero?

LOTSA: GAIZKI EGITEKO BELDURRA

Jendearen aurrean agertzen garenean, lotsa sentitzen dugu.

Lotsa gure baitako lagun gezurtia da, burlan ari zaiguna beti:

“Denak begira izango dituzu”, “barre egingo dizute”, “erridikulua da hori” ...

Pauso bat eman nahi dugun aldiro, hortxe agertzen zaigu lotsa, gu mugatzeko prest.

Lotsaren atzean beldur bat dago: gaizki egiteko beldurra.


Besteen aurrean gaizki egiteak beldurra ematen digu, uste dugulako gaizki egiten badugu, pertsona bezala gutxiago balio dugula. Sinetsita gaude ondo egiten ditugun gauzek esaten digutela zenbat balio dugun.

Baina gure balioa ez dago egiten ditugun gauzetan.

Gure balioa IZATEAN dago. Munduan bakarrak, errepikaezinak eta ordezkaezinak izatean. IZATEA aski da: ez dugu ezer demostratu behar maita gaitzaten.

Ez dugu ezer demostratu behar geure burua maita dezagun.

ONDO ALA GAIZKI EGIN, IZATEAK EMATEN DIGU BALIOA



Aldatzen dizut zure semea beste honengatik:
dena ondo egiten du,
nota onak ateratzen ditu,
edukazioz portatzen da, bibolina jotzen du...



Ez, ez, nire XABAT
nire XABAT da!



Onar dezagun lasai asko: zertan naiz txarra? Lagunen aurrean zer egiteak ematen dit lotsa? Galdetu dezagun etxean: lotsatzean zer egiten duzue? Nola gainditzen duzue zuen lotsa?



GURE BERTSO EMANALDIA

LOTSARI ETA BELDURRARI AURRE EGITEKO AUKERA BAT

GURE LAGUN BURLATI HORRI

Oholtzara irten behar dugunean, litekeena da lotsa sentitzea.

Presta gaitezen lotsari aurre egiteko!

“Aizu, nahikoa da!” esateko poema eskainiko diogu nork gure lotsari.

Bere lekuan jarriko dugu, “honaino txikit@!” esango diogu.

Entzun behar dizkigu galantak pausorik ematen uzten ez digun alproja horrek!

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

BELDURRA

LAGUN ONA BAINA NAGUSI TXARRA



Oholtzara irtengo gara eta, bai, beldurra izango dugu lagun.
Gakoa ez baita beldurrik ez sentitzea; baizik eta, beldurra sokan lotuta, aurre egitea egoerari.
Beldurra geuk menderatuz, eta ez beldurrak gu.
Beldurra hezi beharreko txakurra baita: gure alboan behar dugu, arriskua non datorren abisatzeko. Baina berak gu mendean hartu gabe.



Jendaurreko emanaldian, zeren beldur naiz?

.....




Marrastu dezagun bakoitzak gure beldurra: gure txakurra. Zer izen jarriko diogu?

EMANALDIKO HOZBEROAK TERMOMETROAN

Nola joan zen gure emanaldia? Zer gertatu zitzaigun? Nola sentitu ginen?
Markatu dezagun nork gure termometroan, emanaldian zer-nolako hozberoak izan genituen gorputzean.


Sentitu al dut beldurrik oholtzan?




Eragin al dit beldurrak erreakzioen bat? Dardara, ahotsa joatea, barrez hastea...

.....

Neuk hartu al dut mendean beldurra?



Sentitu al dut amorrurik, aurrera jarraitzeko?



Emanaldia bukatu denean, nola sentitu naiz?

.....

Zer ikasi dut?

.....

Zerekin gozatu dut? Zertaz poztu naiz?

.....

ASMAKIZUNAK

Bertsoa ulertzeari jarriko diogu oraingoan arreta osoa.
Asmakizunetan jolastuko gara.
Gero, gure bertso asmakizuna sortu genezake...
Ezetz asmatu!





Josu
Landeta
Egurrola

Peru
Vidal
Gurrutxaga



ESAMOLDEEKIN LOTZEN



Doinua:

Azpeitiko neskatxak
Hiru puntuko kopia

Bertsolariek kopia bakoitzean egoera bat deskribatuko digute.
Ea lotzen dugun egoera bakoitza pare-parera datorkion esamoldearekin.

ESAMOLDEAK

-Berakatz**a** baino finagoa naiz
-Begitan hartu nuen
-Kale egin nuen
-Zirt edo zart egin beharko dut

-Lekutan nago
-Gogoz kontra ari naiz
-Amaren gonapean bizi naiz
-Aho bete hortz gelditu naiz

Lasterketan korrika
nenbilela bitxi
indarrik gabe nuen
bide ertzean etsi
faborito nintzen ta
azkena iritsi.

Nota onak izatea
ez daukat hain errez
kalera joan nahi nuke
ibiltzeko barrez
baina etxean ikasten
nabil derrigorrez.

Esamoldea

Esamoldea

Irakaslea oihuka
a zelako gerra!
Hari haserre bota
nion berba okerra
orain harentzat ez naiz
konpainia ederra.

Athletic izan dugu
Championsen nagusi
hori entzun eta ez
dut flipatu gutxi
horrelakorik ez dut
sekula ikusi.

Esamoldea

Esamoldea



Doinua:

Bertsoak jarri dizkat
Hiru puntuko koplak

ESAMOLDEAK

- Bakoitzak bere astoari egiten dio arre
- Eskuzabal jokatu nuen
- Ezta hurrik eman ere!
- Geure esku dago

- Ez atzera ez aurrera gabiltza
- Goian zerua eta behean lurra gelditu gara
- Hara bestea!
- Praketan kabitu ezinik nago

Txangora eraman arren
motxila handia
jatekoa ahaztu zuen
hura bai egia.
Pena hartuta eman nion
otarteko erdia.

Klaseetan ez gara
ibili erne gu
lana entregatzeko
ai, zenbat ernegu
baina gura badugu
egin dezakegu.

Atzo esan zidaten
"ona zara, mutil!"
eta ibili ordeztu
apal eta umil
paparra aterata
harro-harro nabil.

Esamoldea

Esamoldea

Esamoldea

Asmakizunak



Doinua:

Madalen Busturiko
Hiru puntuko koplak

ESAMOLDEAK

- Esne mamitan bizi naiz
- Asto izan eta mando bizi
- Hitzetik hortzera erantzun diot
- Izerdi patsetan nago

- Txakurraren biolina!
- Hor konpon!
- Galtzak bete lan daukat
- Zer ikusi, hura ikasi

Goizean atera naiz
etxetik hain apain
gero eguzkipean
egon naizenez zain
kamiseta zeharo
bustita dut orain.

Klaseko agenda dut
zeharo beteta
biharko bi lan egin
behar ditut eta
gainera etzi daukat
hiru azterketa.

Bronkak ez ditut sarri
baina bai laztanak.
Ondo bizitzeko ez
daukat inoiz lanak
nahi dudana egiten
uzten baitit amak.

Esamoldea

Esamoldea

Esamoldea



PASA HITZAI!

Orain puntu bakarrean esango zaigu igarkizuna. Ea asmatzen dugun hitz ezkutua zein den. Adi belarria, eta kasu egin errimari... pista ona izango da eta!

A Taldeko animalia maite du **mendia**

A **ARDIA**
A _ _ _ _ _

E Arturorena harritik gogoz **aterata**

E _ _ _ _ _

H Urtean hamabitan hasten den **tartea**

H _ _ _ _ _

B Lanparari jartzeko led izan **dadila**

B _ _ _ _ _

F Hor saltzen da gaixoen sendagai **guzia**

F _ _ _ _ _

I Ugaztuna: igeri gu baino **hobea**

I _ _ _ _ _

D Urre, zilar zein brontze beti **atsegina**

D _ _ _ _ _

G Cupidok botaz gero pizten da **bizia**

G _ _ _ _ _

J Kamiseta gaineko ta manga **luzea**

J _ _ _ _ _

K Portuko txoria da lapurtzen **iaioa**

K _ _ _ _ _

O Txerriki zoragarri odol eta **heste**

O _ _ _ _ _

U Eguzkiari buelta osoa **ematea**

U _ _ _ _ _

L Dutzatzean ispilua estaltzen **diguna**

L _ _ _ _ _

P Gorputza zulatzea gaur moda **egina**

P _ _ _ _ _

Z Hau lortzeko behar da laranja **odol-hustu**

Z _ _ _ _

M Euskal Herrian asko Popeye **bezela**

M _ _ _ _ _

S Santurtzitik Bilbora datorren **arraina**

S _ _ _ _ _

N Doraemonen ondoan sarri **ikusita**

N _ _ _ _ _


T Patata ta arrautza nahaste **biribila**

T _ _ _ _ _



ERRULETA

Jolas honetan definizio bat edo pista bat emango da aldiro, eta guk asmatu egin behar dugu zein hitzi dagokion.
Hitzaren bukaera emango zaigu: ea zenbat asmatzeko gai garen!




...ARA Euskaldunon hizkuntza.
...ERA Zerbait jakin nahi duzunean ondokoari egiten diozuna.
...IRA Denera, orotara.
...ORA Aspertzen garenean astiro igarotzen da.
...URA Zer aztertzen dute natur zientziek?
...ARE Aurrez aurre, parez ...
...ERE Baserrietako animalia.
...IRE Bere, zure, ...
...ORE Nola janzten zara?
...URE Adineko gizon.
...ARI Bertsoan aritzen dena.
...ERI Ohean etzan egiten zara, eta aulkian?
...IRI Euri txiki eta geldo.
...ORI Hegoak ebaki banizkio, ez zen gehiago izango.
...URI Idatzi gabeko folio bat nola dago?
...ARO Pasa (zubia edo denbora, adibidez).
...ERO Negu hasieran agertzen den pertsonaia ezaguna.
...IRO Poliki.
...ORO Gauza bera behin eta berriz errepikatzen du.
...URO Ordu guztietan.
...ARU Garesti (Bizkaian).
...ERU Ekuadorren azpian...
...IRU Arropa gordetzeko leku.
...ORU Hanken azpian duzu.
...URU Liburutegian aurki dezakezu.



ERRULETA EROA

Jolas honetan definizio bat edo pista bat emango da aldiro, eta guk asmatu egin behar dugu zein hitzi dagokion.

Hitzaren azken bokalak emango zaizkigu. Ea denak asmatzeko gai garen!



A__A Nora begiratzen du amak leihotik?
E__A Kattalin Hodeiren arreba bada, Hodei Kattalinen ... da.
I__A Gu bagina, eta haiek...
O__A Erakusleihoetan ikusten dugu aurtengoa zein izango den.
U__A Lehenengo txirrindulariak besoak igota zeharkatu du.
A__E Ez dauka lotsarik.
E__E Mesedez eskatzen duzu.
I__E Ikerketak ezkutuan egiten ditu.
O__E ... da oinez eta seguru, eta ez zaldiz eta zulora.
U__E Ni nago, zu zaude, haiek...
A__I Erne.
E__I Behar baino gehiago.
I__I Ez herri, ez auzo.
O__I Gizen.
U__I Fruta gorri.
A__O Ni nago, zu zaude, bera...
E__O Urte guztietan.
I__O Behera jaitsi egiten gara, eta gora?
O__O Hegan egiten du baina ez da hegazkina.
U__O Arte martzial.
A__U Katua atzetik du.
E__U Urtaro bat.
I__U Ordaintzeko erabiltzen duzu.
O__U Era.
U__U Lepo gainean duzu.



Unai
Ormaetxea
Zenikazelaia



EZETZ ASMATU

Urtaroei jarritako bertsoak hara, doinu berrietan.
Ea asmatzen dugun zein urtaro den bakoitza: udaberria, uda,
udazkena, negua.
Eta azken bertsoa, guztiak biltzen dituen, zer ote da?

Badoa eguzkia
zain dago **euria**
trasterora txirringa
toalla, **buggya**...
Ikasturte berrien
gorputz **urduria**
bete dugu liburuz
motxila **erdia**
hostoak jausten doaz
eguna gau **ia**
Gabonak heldu arte
zaindu **ipurdia**.

Zein urtaro da?

Udazken koloreak ja
joan dira **parketik**
umoreak ere gehiago
dauka zuri-**beltzetik**
Olentzero noiz etorri
tik-tak-tok ta tok-**tak-tik**
zaindu gorputzak ta estali
eztarriak **hotzetik**
ez dugu egingo eta
urte osoa **arotik**
elur-bolekin jolasten
ikasi **dugunetik**.

Zein urtaro da?

Berriz orlegi zelai-mendiak
berriz irrien **laguna**
Aste Santuko oporren mezu
eta argazki **bilduma**
noten arduraz baina tira
bukatzear da **jarduna**
goizean goizik kantatzea
da ondoen **datorkiguna**
horren loredun, horren ezteundun
gauak sortu du **eguna**.

Zein urtaro da?

Bat, bi, hiru, lau, bost, sei eta zazpi
zazpi eguzki **printza**
txoriek do, re, mi, fa, sol, la, si
guk jar dezagun **hitza**
beroa zakar, hondarrak hondar
lagun berrien **ditxa**
oporak opor gauak gaua zor
agur gelako **fitxa**
ze polita den olatu batek
biribiltzea **bizitza**.

Zein urtaro da?

Zein da orduan udazkeneko
orbelaren **kolorea**?
Edo neguko elur pilotak
zer ote dauka **gordea**?
Irriak berez, ernaltzen al du
udaberriko **lorea**?
Ta udak nola pausa dezake
hondarretan **umorea**?
Hirurehun ta hirurogeita bost
eguneko **ohorea**
zugan ta zeure egin ezean
ez du balio **ordea**.

Lau urtaroak biltzen dituen,
zer da?

NEURRIA



PUNTUA

Bertsoa puntuz puntu osatzen da, esaldiz esaldi: etxearen solairu bakoitza da **puntua**. ●

Puntua esaldi bat da, eta bere azken hitzak **errimatu** egiten du gainerako puntuen azken hitzarekin. «?»

Azken hitz horri **oina** esaten zaio. 🐾

Errima: -ITZA «?»





PUNTUA, OINA ETA ERRIMA



Koplak kantatuko ditugu.

Biribildu egingo ditugu **puntuak** (errimaraino doazen esaldiak).

Azpimarratu egingo ditugu **oinak** (errimatzen duten hitzak).

Eta **errima** zein den idatziko dugu (hoskidea den zatia). «?»



Doinua:

Trenko koplak

Hiru puntuko koplak



**Aitor
Irastortza
Arrizurieta**

Gizartea herritik

doa hirira

gertuko harremanei

jarriz begira (bis):

orain etxe-ko zenbat

biziko dira?

Errima: -IRA «?»

Arbasoek pilatu

zuten jakintza

belaunaldi hauetan

galduz gabiltza (bis)

globalizazioak

hartu du giltza.

Errima: «?»

Sutondoko kontuek

bazuten txispa

aiton-amonak lehen

maixu ta maixtra (bis)

orain irakaslea

da telebista.

Errima: «?»

Teknologia puntan

dago jo ta su


zertarako daukazun


esan ezazu (bis)


nori erakutsia


ez badaukazu.

Errima: «?»

Nortasun gabe dabil
sarri pertsona
denon ametsa omen
da zoriona... (bis)
inor gabea al da Errima: 
bizitza ona?

Ondoan duzunean
zure laguna
ahaztu lehena ta
etorkizuna (bis)
oso garrantzitsua Errima: 
da maitasuna!


Bakarrik sentitzea
denez gogorra
pentsatu lagungarri
den mugikorra (bis)
luze egin liteke Errima: 
bidezidorra.

Lortzeko ez da izan
beharrik mago
bihotz ta begiradak
zainduz gehiago (bis)
orain aukera zure Errima: 
eskutan dago!

HANKALUZE ETA HANKAMOTZ

Hankaluzea: Dagokion baino **silaba gehiago** sartzea bertso-lerro batean.

Hankamotza: Dagokion baino **silaba gutxiago** sartzea bertso-lerro batean.

 Koplak bakoitzean akats bat dago. Ea aurkitzen dugun, eta akats bakoitza dagokion irudiarekin lotzen dugun.




Doinua:

Zizperriko kalean

Kopla edo lauko txikia

Jateko mizkina da
etxeke **txakurra**
gustukoena du bizilagunen
orkatila **hezurra**.

Hozka egiten badu
hortzak **zorrotz**
hankaluzeeana ere
laster da **hankamotz**.





NEURRIA ZAINDUZ



Hutsuneak beteko ditugu; alboko hitzen artean egoki datorrena **azpimarratuko** dugu. Kontuz **hankaluzerik eta hankamotzik** egin gabe!

HERRI KIROLAK



Doinua:

Gizona da zoroa
Zortziko txikia

Gorputza mugitzeko



bada nahiko **tarte**/bada nahiko **denbora**/ bada nahiko buru**hauste**

egun hasieratik

gaua heldu **arte**



gauza gehiagotan / beste gauzetan / gauza ezberdinetan

har dezagun **parte**

kirol asko baitaude

futbolaz **aparte**.

Frontoien oihartzuna / Frontoien hotza / Frontoiairen kolorea
piloten **tokea**
esku, pala, laxoa
(e)ta **erremontea**

ahal bezain azkar / ahal bezain gogor / sartu gerria eta
tiratu **kolpea**
(e)ta eskas geldituko
da **errebotea!**

Herri kirolek ere

galdu zuten **fama** / ze gogorrak, ai **ama!** / badute **xarma**
lasto altxatze, sega,
koskol biltze, **arpana** / aizkora, **arpana**/ sokatira, **arpana**
harri handiek ere
non daukate **zama?**
Euskaldunak harri jasotzaile bat / Euskarak harria/ Euskaldunak kirola
senean **darama.**

Aukerak makina bat / Aukerak asko / Aukerak pila bat
dauzkagu gaur **egun**
beraz ikuspegia

aldatu, **lagun!** / zabaldu **dezagun** / arima, buru ta **garun**
kirol ezberdinetan

izan **txapeldun** / ia zer egin **dezakegun** / probatu ta **jardun**
hala jakingo dugu
zer gustatzen **zaigun!**

BIZI BARATZEA



Doinua:
Bertsoak jarri dizkat
Hiru puntuko kopla

Ama _____ lurrak denontzat / lurrarentzat / guretzako
duen **oparia**
zaindu beharrekoa
fruituen **habia**
_____ baita ona / akiezina / oso emankorra
bere **emaria**.

Aitortu behar dugu
_____ **esanez** garbi / ahoarekin / bertsotan
jateko hori guri
gustatu **ala ez**
osasuntsu _____ egoten gara / gaudela / sentitzen naizela
barazkiak **janez**.

Arrastelua, pala
edota **aitzurra**
lurrarekin _____ zikindu / konektatuz / bat eginez
laiaren **muturra**
_____ guztia hartzeko / joan zaitezte baratzerara / esperimentatzeko
ez izan **beldurra**.

Letxuga, _____ patata / tomatea / azenarioa
leka, **kalabaza**,
tipula, espinaka,
marrubia, **aza**,
probatu _____ jartzen / landatzea / lurrean sartzen
zerbait **zure kasa**.

Eros daitezke baina
_____ **balira** hobeagoak / hobeak / merkeagoak
nahiz _____ dendan / supermerkatuan / eta azken aldian
nagoen **begira**
guztietan onenak
etxeakoak **dira**.

BAIETZ BAT-BATEANI!





KOPLATAN

Koplatan egingo dugu, bat-batean.
Lehen puntua soilik asmatu beharko dugu. Baietz lortu!

..... eta nik horregatik piztu dut BONBILA ireki dut motxilan nuen KOADERNOA jai egunetarako oso EGOKIAK gorri-gorri ipini zaio AURPEGIA
..... poltsikotik erori zitzaidan KARTERA kuadrillako guztiak mozorrotu GARA apurtu zaionean bere TRAKTOREA eta agertu dira hamazazpi SUGE
..... ez dakit zortea den edo MIRARIA ikasteko ez daukat nahikoa DENBORA besteen begiradak ez zaizkit ARDURA gaur ez nuen espero hala EGOTEA
..... lagun batek kontatu zidan GUZTI HORI eta ondoren zure lekuan ESERI bota dituztelako lehen SUZIRIAK oso errazak dira euskarako FITXAK
..... ondoren idazteko lagunari PASA horregatik ez daukat ipurdi LODIA horrela egin nuen zauri txiki HORI eskua emateko Lur eta PERURI
..... bat-batean aldatu da EGURALDIA busti-bustita dago nire GALTZERDIA hau nola gertatu den ez daukagu ARGI zergatik begiratzen ote dit ARRARO
..... oheratzeko garbi, goxo eta BERO hori ez da normala dago erdi ERO gustura egingo dut domekan BERRIRO gu iritsi orduko sartu zen LANBROA

.....
DARDOA	SAGUA	PARTIDUA	GALDU
eta lortuko ditut diana MORDOA	gazta aurkitzea da bere HELBURUA	sarrera erosteko behar dut DIRUA	eta orain ez dakit gero zer AFALDU

.....
ZARATA	PIRATA	BETETA	BATEK
egurrezkoa baita daukadan ZAPATA	hankan makila eta eskuan EZPATA	ez dago oso garbi Bilboko ERREKA	eta bere osabak ditu hiru TXALET

.....
JANTZITA	PRESAKA	KAKA	DIETA
astero egiten dut nik AEROBIKA	ezin dugu jarraitu altxorraren MAPA	eta gero hurbildu zitzaigun ZAUNKAKA	egunero jaten dut haragi TXULETA

.....
ERORKETA	KRITIKA	JUDOKA	NOTA
ezin dut erabili MENDI-BIZIKLETA	lagun batekin izan nuen IKA-MIKA	ikusleen artean sortu zen BORROKA	saltoka hasi nintzen mahaira IGOTA

.....
BOTAKA	ZITA	TIRITA	EUROPA
eta bukatu zuen lurrean BOTATA	niretzako izan zen momentu POLITA	bekokia zauritu nuen ERORITA	errefuxiatu asko nahi dituzte BOTA

.....
DAUKA	KANTA	MARKA	ALKATEA
horregatik buruan jarri du PELUKA	isilpean gelatik egin dugu HANKA	horrela badakigu zein den gure KARTA	noiz konponduko digu auzoko PARKEA

.....
HIRUKOA	GRIPEA	DIDATE	ZENBAKIA
taldekideak eman zidan BOSTEKOA	ohean nago eta ahoa TXIKLEA	Zoo batean daude zazpi ELEFANTE	horretarako piztu dugu IRRATIA

Baietz
bat-batean!

<p>.....</p> <p>..... HIPPYA</p> <p>institutuan egin zuen GRAFITIA</p>	<p>.....</p> <p>..... TABAKOA</p> <p>eta eztulka hasi zaigu NESKATOA</p>	<p>.....</p> <p>..... TXALEKOA</p> <p>nik armairuan daukat horren ANTZEKOA</p>	<p>.....</p> <p>..... GERRIKOA</p> <p>eta ikusi nion praken AZPIKOA</p>
<p>.....</p> <p>..... NAHIKO</p> <p>aspaldi aspertu naiz ez ditut BEGIKO</p>	<p>.....</p> <p>..... PIROPOA</p> <p>orduan eman zidan BELARRONDOKOA</p>	<p>.....</p> <p>..... TXARTO</p> <p>horregatik txuleta egin dut BIHARKO</p>	<p>.....</p> <p>..... GRABATU</p> <p>sagu baten atzetik hamazazpi KATU</p>
<p>.....</p> <p>..... NAZKA</p> <p>benetan txikia da duen ARRAKASTA</p>	<p>.....</p> <p>..... FESTA</p> <p>kartera galdu eta zer-nolako KEZKA</p>	<p>.....</p> <p>..... TXIMISTA</p> <p>horregatik erretzen hasi zen MENDIXKA</p>	<p>.....</p> <p>..... DATUZ TA</p> <p>korrika hasi eta egin dugu OSPA</p>
<p>.....</p> <p>..... DAUZKA</p> <p>eskerrak eman didan lehenengo PUSKA</p>	<p>.....</p> <p>..... ZAITEZKE</p> <p>minduta badituzu gibel eta HESTE</p>	<p>.....</p> <p>..... BUSTIA</p> <p>euritan ibili da arrasti GUZTIA</p>	<p>.....</p> <p>..... EZTIA</p> <p>baina prezioa da oso GARESTIA</p>
<p>.....</p> <p>..... ASTOA</p> <p>errepidean dago kriston ATASKOA</p>	<p>.....</p> <p>..... TESTUA</p> <p>bi ordutan nekatu zitzaidan ESKUA</p>	<p>.....</p> <p>..... HEGAN</p> <p>onartzen dut pasatu dudala PRIMERAN</p>	<p>.....</p> <p>..... UDAN</p> <p>ez dakizue zenbat ideia DITUDAN</p>
<p>.....</p> <p>..... IGERIAN</p> <p>baina nahikoa alfer nabil ASPALDIAN</p>	<p>.....</p> <p>..... ONDOAN</p> <p>trenean kristaletik begira NINDOAN</p>	<p>.....</p> <p>..... TXANTXETAN</p> <p>barrezka hasi gara momentu HORRETAN</p>	<p>.....</p> <p>..... TRIPAN</p> <p>komunean botaka egin dut BIRRITAN</p>
<p>.....</p> <p>..... TRIPAN</p> <p>horrela sentitu naiz aurreneko ZITAN</p>	<p>.....</p> <p>..... MUXU</p> <p>ezpainak txokolatez beteta DITUZU</p>	<p>.....</p> <p>..... DEZAN</p> <p>beldurra daukat eta ez dakit zer ESAN</p>	<p>.....</p> <p>..... ONDOREN</p> <p>agertu nahi dut zeinen gustura NAGOEN</p>

OINA AUKERAN

Koplatan, lehen puntua asmatzea izango da gure lana. Horretarako zein oin hautatuko dugu?

GAIA: FIDA ZAITEZTE GUTAZ.

AZKEN PUNTUA

Gure erara ere
moldatuko gara.

OINAK

ikara, erara, al da ba, beharbada, laga, traba, gisara, zaila da, begirada, ilara, mailara...

.....

AZKEN PUNTUA

Gehiago ikasten da
gauzak geuk eginez.

OINAK

ezinez, zinez, jakin ez, ahaleginez, adinez, berdinez, pittinez, mitinez, atseginez, finez, oinez...

.....

AZKEN PUNTUA

Sermoi gutxiago ta
etsenplu gehiago.

OINAK

dago, gehiago, zeharo, arraro, esklabo, mago, dado, oparo, zailago, abaro, luzaro, itxaro,
babo...

.....

AZKEN PUNTUA

ez esan nola egin
eta egiten utzi.

OINAK

gutxi, erakutsi, ikusi, igurtzi, eutsi, hautsi, erauzi, jauzi, auzi, guz(t)i...

.....

AZKEN PUNTUA

egingo dugu baina
ez nahi duzun gisan.

OINAK

esan, dezan, izan, bizitzan, gabiltzan, komeni zan, jasan, eskaintzan, langintzan, gerizan,
peskizan, jakintzan...

.....

AZKEN PUNTUA

hanka sartuz egiten
delako bidea.

OINAK

ide(i)a, kidea, librea, xelebrea, berea, legea, ordea, gordea, aldea, taldea, jendea, mesedea,
fedea, hobia, ohorea, berea, boterea...

.....

AZKEN PUNTUA

asko kostatakoak
poz gehiago dakar.

OINAK

hamar, mar-mar, xamar, azkar, zakar, behar, bihar, indar, lipar, liskar, bizkar, koldar, baldar,
malkar, lakar, izar, bizar...

.....

AZKEN PUNTUA

Besteek zer dioten
niri bost axola.

OINAK

edonola, inola, eskola, kontrola, futbola, gola, odola, dariola, oskola, farola...

.....

AZKEN PUNTUA

Ordua da aurrera
egiten hasteko.

OINAK

usteko, uzteko, bakoitzeko, menpeko, dagoeneko, seko, ederto, hobeto, konpleto, izeko, peto...

.....

AZKEN PUNTUA

Inork ez du balio
nik baino gehiago.

OINAK

dago, gehiago, zeharo, arraro, esklabo, mago, dado, oparo, zailago, abaro, luzaro, itxaro, babo...

AZKEN PUNTUA ERE TOLESTEN

Koplatan egingo dugu, bat-batean.

Azken puntua biribiltzea ere gure esku dugu. Ea zer datorkigun!

.....K.O goizero COLA CAO MAKILA itzali MOBILLA FRUTA limoizko JOGURTA!!
..... OREKA hamalau GAILETA BISITA zaila GRAMATIKA ABILA PATATA TORTILLA .
..... ESNEA heldu da UNEA BAT tutoretza DAUKAT ONA PLAY STATION-A .
..... FRESKOA HAMAIKETAKOA GELA galdu dut PINTZELA GORDETA amaren TABLETA .
..... MUSIKA kaskoak JARRITA GARA ZUZENDARITZARA AMAK: etxerako LANAK .
..... GOGORRA nire MUGIKORRA KANPO BAZKARITARAKO HASI guztia IKASI .
..... ETB-N ikusi YOUTUBEN BERRIAK indaba GORRIAK GERO triki ta PANDERO .
..... HAN zabaldu INSTAGRAM NAIZ TA ardiaren GAZTA URA IGERILEKURA .

..... LAN antzerki ESKOLAN LAGUNA euskara EGUNA GELDO non dago IGELDO?
..... ASTEA buruz IKASTEA BERTAN INAUTERJETAN GESALIZA Arabako GATZA .
..... LANEAN ASTEAZKENEAN BERO dator OLENTZERO ZAPIA Baiona TTIPIA .
..... AHALA behingoz OSTIRALA ASKOTAN herriko AZOKAN GEHIAGO Urepelen DAGO .
..... BURUAK nire LIBURUAK AURTEN Gatibu ENTZUTEN BURUA beti XIBERUA .
..... ETXEAN ohera SARTZEAN ERDIAK taldeko SELFIE-AK ATZEAN itsaso ERTZEAN .
..... ATERA argazki KAMERA BEGIRA LIBURUTEGIRA ZORROTZ Pirritx eta PORROTIX .
..... GORA igo ANBOTORA BEHARRIK futbola BAKARRIK ZARA banoa LOTARA .

PUNUKA

Lerro bat baino ez dugu sortu behar. Has gaitezen, txandan-txandan!

- -----
galduta **IPARRA**

- -----
badaukat **INDARRA**

- -----
ez da ezer **TXARRA**

- -----
aukera **BAKARRA.**

- -----
berriz ere **TXARTO**

- -----
behar **DUDALAKO**

- -----
aurreraka **SALTO**

- -----
saiatu **BEHARKO.**

- -----
jarri **INTERESA**

- -----
hartuta **BABESA**

- -----
batere **ERREZA**

- -----
da nire **AMETSA.**

- -----
hainbat **BORONDATE**

- -----
bihurtu **NEZAKE**

- -----
jake eta **MATE**

- -----
irabazi **ARTE.**

ERRIMA





ERRIMEN FAMILIAK



Kontsonante batzuk, nahiz eta **ezberdinak** izan, **hoskideak** dira: **antzeko soinua dute** eta, horregatik, **errimatzat** onartzen ditugu.

K-P-T KONTSONANTEAK

Gogoratzeko: **KoPeTa**.



 **OINAK**
-ZARATA
-ALDAPA
-ARRASTAKA

*Zergatik dira antzekoak?
Kontsonante horiei **ahoskabeak** esaten zaie.
Eskua eztarrian jartzen badugu eta kontsonantea soilik ahoskatu, bibraziorik ez dagoela ohartuko gara; kolpe lehor batekin ahoskatzen dira.

M-N KONTSONANTEAK

Gogoratzeko: **aMoNa**.



 **OINAK**
-ZAMA
-LANA

*Zergatik dira antzekoak?
Kontsonante horiei **sudurkariak** esaten zaie.
Kontsonante horiek ahoskatzerakoan sudurra tapatzen badugu, ezingo ditugu ahoskatu (kontsonanteak bakarrik ahoskatu).

B-G-R-D KONTSONANTEAK

Gogoratzeko: **BeGiRaDa**.



 **OINAK**
-MUNDURA
-DUDA
-MUGA
-KLUBA

*Zergatik dira antzekoak?
Kontsonante horiei **ahostunak** esaten zaie.
Eskua eztarrian jartzen badugu eta kontsonantea soilik ahoskatu, bibrazioa sumatuko dugu.

S-Z-X-TS-TZ-TX KONTSONANTEAK

Gogoratzeko: **Sugea**.



 **OINAK**
-PRESA
-ERREZA
-KEXA
-TRAKETSA
-AKETZA
-GOMETXA

*Zergatik dira antzekoak?
Kontsonante horiei **txistukariak** esaten zaie.
Haizearen eta sugearen zarata gogorarazten digute.

BAIETZ ASMATU OINA!



Doinua:

*Dama gazte xarmant bat
Zortziko txikia*

BEGIRADA

Gurasoek gaituzte
gaur bakarrik **laga**
izeba lanean da
kanpoan **os** _____
baina, lasai, jateko
moldatuko **g** _____
lehenengo platera
kriston **entsal** _____

KOPETA

Energia hartzeko
behar da **oreka**
gosez gera ez dadin
nire anaia **K** _____
piztu parrila eta
bota bi **txul** _____
aitak bakarrik egin
dezala **di** _____

SUGEA S-Z-X...

Txorrotaren azpian
garbitu **uraza**
tipula zatitzea
ez dugu **jol** _____
tomatea gehituta
hartu dugu **mar** _____
gainetik bota ozpina
olio eta **g** _____

AMONA

Postrea prestatzea
azkeneko **lana**
etxeko errezetak
badu bere **f** _____
azukre, esne, arrautzak
egiteko **fl** _____
harrikoa da soilik
egingo ez **dud** _____

POTO!

Bertso batean *poto* egitea oin bat **esanahi berarekin** errepikatzea da.

Bertso bakar batean
bi oinekin **topo**:
horri esaten zaio
egitea *poto*.
Arreta jar ezazu
behingoz, **segapoto**
deskuidatu ezkeru
baietz egin *poto*!




ETXEKO LANIK EZ!

Poto konpon

Bertso bakoitzean, potoa aurkitu eta konpontzen saiatuko gara.
Horretarako, azpian ditugun oinak erabil ditzakegu.

Eskolan ordu pila
pasatzen **ditugu**
ta asko ikastea
dugu guk **helburu**
baina etxerako ere
beti lana **dugu**
ta pasatzen ditugu
hamaika **helburu**.

 **OINAK**
– APURU
– GU
– INGURU
– BURU

Etxean guk lanean
denbora **igaro**
jolasteko aukera
guztia **akabo**
gure erabakia
oso argi **dago**
guretzako nahi dugu
denbora **igaro**.

 **OINAK**
– GEHIAGO
– GUTXIAGO
– KLARO
– LUZARO

Nahiz batzuetan garen
gu nahiko **aldrebes**
klasean jartzen dugu
nahikoa **aldrebes**
ta bukatuko dugu
ozenki **esanez**:
eskolatik kanpora
lanik ez **mesedez!**

 **OINAK**
– LEGEZ
– BABES
– ERREZ
– INTERES

EZ NAIZ ASPERTUKO



Poto konpon

Bertso bakoitzean, potoa aurkitu eta konpontzen saiatuko gara. Horretarako, azpian ditugun oinak erabil ditzakegu.



Doinua:
**Haizeak bidali du
Zortziko txikia**

Nagiak nauka sarri
logelan **menpeko**
eta ez naiz kapaza
ezer **egiteko**
leihotik begiratzuz
pentsatzen **hobeto**
kalera atera naiz
zerbait **egiteko**.

Korrika hasi eta
zelako **abaila**
alboan gazte batzuk
esaten “ze **maila**”.
Trap eta reggetoia
entzuten, hau **maila!**
Nik gustukoena dut
Rapean **Free Styla**



OINAK

- ASMATZEKO
- KONTATZEKO
- JARRAITZEKO
- IZEKO



OINAK

- SAILA
- IRAILA
- TOALLA
- ZAILA

Pentsatzen nabil goibel
ta buru **makurra**
horma bat ikusi dut
eta ez da **hezurra**
nire irtenbidea
gaurkoan **Parkourra**
saltoka ariko naiz
hautsi gabe **hezurra**.

Lagunek esan dute
goazen **abestera**
bertso eskolan dugu
herrian **aukera**.
Bertso Hopa abestu
ta gero **kalera**.
Merezi du irtetea
sarritan **kalera!**



OINAK

- IKURRA
- LAPURRA
- GEZURRA
- AGURRA



OINAK

- AURRERA
- OHERA
- ARTEGA
- ETXERA



Poto konpon

Sorta honetan potoak aurkituko ditugu, eta konpontzen saiatuko gara. Horretarako, azpian ditugun oinak erabil ditzakegu.



Doinua:

**Kantore berri xarmant batzuek
Zortziko handia**

Lagun guztiok pozarren goaz
egunero **eskolara**
jolas-orduan ibiltzen gara
korrika hona zein **hara.**
Ordu erdian izaten dugu
hainbat liskar eta **hara**
nahiz eta denok berdinak izan
oso desberdinak **gara.**

Oinak:

beharbada, algara, traba, zara

Sarri ez dugu berdin pentsatzen
edota sentitzen **dena**
hau ulertzen ez duten guztiak
ematen didate **dena.**
Inoiz norbaitek barre egin badit
izatearren **naizena**
argi dut, ez dut zertan jarraitu
denek egiten **dutena.**

Oinak:

barrena, problema, pena, lema

Futbola kirol ezaguna da
Amaia da **abilena**
atletismoa hain gogorra da...
Maialen da **abilena**
Eneko, berriz, dantzaria da
balleta egiten **onena**
nori inporta zaio zer dugun
gauzarik **gustukoena?**

Oinak:

izena, gizena, azkarrena, azkena

Mutil gogorra neska biguna
hau ez da gure **papela**
neskak pilotan, mutilak dantzan
hori ez al da **papela?**
Nire lagun on denek dakite
horrelakoa **naizela**
eta horrela maite ez nautenak
izorratu **daitezela.**

Oinak:

gela, erregela, txapela, itzela

NIRE BERTSOAK



A series of 20 horizontal dotted lines for writing.

Handwriting practice lines consisting of 20 horizontal dotted lines spaced evenly down the page.

A series of 20 horizontal dotted lines for writing.

Handwriting practice lines consisting of 20 horizontal dotted lines spaced evenly down the page.

A series of 20 horizontal dotted lines for writing.

Handwriting practice lines consisting of 20 horizontal dotted lines.

Handwriting practice lines consisting of 20 horizontal dotted lines spaced evenly down the page.